

uztarria

Azpeitiko herri aldizkaria

KILOMETROAK URRIAK 1EAN

**Ikasberri ikastolak antolatu du aurtengo
Kilometroak**

urtemuga

**Otaegi
nuarbetarra
hil zutela
25 urte**

bertsolaritza

**Joxin Iturriotz,
Urolaldeko
bertsolaritza
aztergai**

elkarrizketa

**Pello
Usandizaga:
«65 urtekin, ta
atzea lanien»**



AZPEITIKO AKADEMIEN GIDA

Informatika



Ukabi
prestakuntza

La Salbe 40, tel. 943 15 70 73

Arte eta diseinua

ARTE ETA DISEINU IKASTEGIA

**MARRAZKI ETA ESKULANAK
(UMEENTZAT)**

MARRAZKI ETA PINTURA

TALLA ETA ESKULTURA EGURREAN

ZERAMIKA

Tfno.: 943 81 2808
Julian Elorza Ibilbidea s/n
20730 - AZPEITIA

Ingelera

CENTERPOINT ACADEMY

Ingelestegia- English School

- HAURRENTZAKO KLASA BEREZIAK
- IKASTALDE TXIKIAK
- ORDENAGAILUZ ETA BIDEOZ
LAGUNDUTAKO IRAKASKUNTZA
- INGELESEZKO LIBURUTEGI ETA BIDEOTEKA
- AZTERKETARAKO PRESTAKETAK.
HIZKUNTZ ESKOLA OFIZIALA,
CAMBRIDGE, TOEFL

ZATOZTE!!!

Foru Ibilbidea, 7-1 ezk. ● AZPEITIA
Tel.: 943 81 65 03

Eskulanak



- Zurezko altzarien
polikromatua.
- Metala, tela, eskaiola eta
poliuretanoan margotzea.
- ... eta beste hainbat eskulan.

Matrikula xabalik urte osoan

Foruen Ibilbidea, 3
Tel.: 943-816107

«Herria da gorputza, hizkuntza bihotza» (Xalbador)

ale honetan...

4-5-6: Alaitz Olai-
zola, Jabier Altu-
na eta Lagun
Onak MB-koen
iritzia, Salegiren
marrazkia...

8-9: Udala.
Alejo Uranga
zinegotziari elka-
rrizketa eta udal
euskaltegiaren
eskaintzak.

16-17: Iñigo
Agirre
Kilometroak
2000ko batzorde
buruari
elkarriketa.

18-19-20-21:
KMK'00 ekital-
dien barruan
antolatutako eki-
taldiak. Ibilbidea
eta egitaraua.



22-23-24: Orain
dela 35 urte
herrian ikastola
sortzeko izan
ziren
gorabeherak.

26-27: KMK'79
Loiolan eta Josu
Erguin
Kilometroen
sortzaileari
elkarriketa.



28-29:
Elkarriketa.
Joxin Iturriotz
bertsolaritzari
buruz liburua
idazten ari da.

32-33: Otaegi
nuarabetarra
hil zutela
25 urte
bete dira
egunotan.



38: Elkarriketa.
Pello
Usandizaga:
«Jubilaute eta
oraindik lanean
ai naiz»

AKuILua

Bizitza baino
zerbait
gehiago



**Fernando
Morillo**

Idazlea

Zertarako balio ote du
mendian penatzeak, ton-
torrak igotzen aritzeak?
Areago oraindik, mendi horiek
urrun baldin badaude... Hori
alferrik nekatu beharra! Eta
gutxi balitz, gainera, arrisku-
tsua.

Hainbatetan entzun izan dut
antzeko diskurtsoa. Azkenal-
dian batik bat.

Nik ez dakit zergatik dirudien,
mendiaren begipe isilean, bizi-
tza beste zerbait dela. *Zerbait
gehiago*. Ez dakit. Beharbada,
gizakiok galdutzat jo ditugun
ametsak, mendiaren bakardade-
an ezkututzen direlako.
Beharbada, gure benetako neu-
rria, norberaren aurkako borro-
kan baino agertzen ez delako.
Ez, ez dakit zergatik. Baina
badakit, bai, hori horrela dela.


Horrexegatik, miretsi besterik
ezin ditut egin, amets ezkutu
horiek, nik baino mila aldiz ger-
tuagotik besarkatu dituztenak;
behar baino lehen joan arren,
sekula joango ez diren mendiza-
leak. Felix eta Takolo. Ez adio-
rik.

Argitaratzailea: Uztarria Kultur
Koordinadora
Egoitza: Julian Elorza 4, 2. ezkerria;
Telefona: 150358. Faxe: bera
Posta kutxa: 227, Azpeitia
Publizitatea: Tel: 150358
Posta elektronikoa:
uztarria@topagunea.com
Inprimategia: Gertu
Tirada: 1.500 ale
Lege gordailua: AS / 6 / 08255 / 1999

UZTARRIAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizuna

Irudiekin, Iraurgi bailararen zerbitzura

KAITO TELEBISTA



☎ 81 53 35

amuko zubitik



Urriak bata



Alaitz Olaizola

7 9.eko urriko egun hura ez dut gogoa -urrian izan ote zen? - entzutez zeharo eza-guna bazait ere.

Azpeitira jende asko etorri zela esan didate, baina ez dut uste aurtengoan adina bilduko zirenik. Denok kabituko ote garen ere beldur naiz!

Prestatu dadila Azpeitia eta bertakoa dena, Aita Santuaren bixitaz geroztik, urriaren batean herrian ospatuko den gisako festa-rik ez delako izan. Eta barkatuko didazue, baina alde ederra badago!

Pentsa, inora joateko autobusik hartu gabe,

ibilbidean galtzeko kezkarik gabe. Euria ari duela eta arropa aldatzea komeni dela? Dena bertatik bertara. (Dena dela lasai, eguraldi ona ere enkargatua dago).

Giro jatorra dudarik gabe, primerako zerbitzuak seguru eta festarako gogoa seguruenik ere soberan. Ni behintzat, prest nago HAU DA! lemapean ikastolen aldeko festa erraldoian euskaldun giro ederrean kalera irten eta festan murgiltzeko.

Ibilbidean bueltatxo bat eman berri naiz eta giroak lagunduz gero, azken urteetako Kilometroetako

ibilbiderik politena izan daitekeela iruditu zait, probatu bestela.

Urriaren 2an, handik eta hemendik eroriko dira zer esanak, ondo edo gaizki eginak, soberan halako, faltan beste halako... Baina «ahal duena egiten duenari, ez gehiago eskatu».

Ahaleginak pena merezi du, beti.

Datorrena datorrela eta festaz goza dezala.

Nahi ez duena, etxean ilunpean gera dadila, aurtengo Kilometroak 00-k, berarekin bait darama argia bazter guztietara.

Ondo pasa ditzazuela Kilometroak 00-ak!

gutunak

Unai Lizaso EHko zinegotzia gezurretan

UztARRIA aldizkariaren azken alean EAko zinegotzia den Nekaneri egiten zaion salaketa gezurtatu nahi genuke EA zinegotzi talde bezala. Eta Unai Lizaso EHko zinegotziaren jokabidea salatu nahi genuke. Bera izan baita gezurrezko informazioa sortu eta zabaldu duena.

Unai Lizaso EHko zinegotziak egin zuen aurrena salaketa eta ondoren etorri da zenbait gazteren idatzia. Idatzi hartan esaten zenez, Nekanek Kaitori prentsurreko bat grabatzeko debekua eman zion. Informazio hau faltsua da. Gezur hutsa eta maltzurra da.

Unai Lizasok, gure taldeko Nekaneri miñ egiteaga-

tik, informazio faltsu bat eman die idatzia sinatu duten gazteei. Unai Lizaso, gazte hauei gezurretan ari zaie, beraien artean gorrotoa sortu asmoz. Informazio hau gezurra dela argien erakusten duena, Kaitok berak esandakoa da. Kaitok informazio hau publikoki gezurtatu egin du.

Honen aurrean, honako galdera egiten dugu: Zer dela eta ateratu du Unai Lizasok gezurrezko kontu hau? EA taldeak gazteen arloan bere iritzia eman duelako? Eta iritzi hau beraienarekin bat ez datorrelako? Ezin dute EAk bere iritzia libreki ematea onartu? Beraiek bezala pentsatzen ez duena ezin dute onartu?

Honek erakusten du, Unai eta bere taldekideek bes-

datua

Fernando Morillo idazle azpeitiarrak 25 sari irabazi ditu dagoeneko, bere idazlane-kin. Azkena Igartza beka jaso du.

teen adierazpen askatasuna ez dutela onartzen, besteok beraiena errespetatzen dugun bitartean.

Azpeitiko EAko zinegotzi taldea

Kaito Telebista

Abuztuko Uztarrria Herri Aldizkarian, Azpeitiko Gazte Mugimenduak idatzitako gutunean adierazten dena argitu nahi du Kaito Telebistak.

Nekane Larrañagak, Azpeitiko Eusko Alkartasu-

neko zinegotziak, ez dio inongo debekurik jarri Kaito Telebistari.

Nekane Larrañagak telebistako agerraldietan alderdi ezberdinen arteko proportzionaltasun bat besterik ez zuen eskatu, Kaito Telebistak zenbait aldaketa aurrera eramateko proiektu bat aurkeztu zuenean.

Kaito Telebistaren filosofia da, inorengatik mediatikoki erabilia ez izatea.

Nicolas Oteiza Lezeta

Non da Salbe?

Heldu den irailean, kalean bi aldiz gelditu naute herri-erorritako kanpotarrek, kale baten berri galdezka. Salbe kalea non dago? Zergatik ez da, horrelako auzo handi bat behar bezala seinalatzen?

Leire Altuna

UztARRIaren oharra: gutunak, ahal dela, motzak izan behar dute, bestela UztARRIAK mozteko ahalmena izango du. Kartak bidali hona: UztARRIA, 227 posta kutxa, Azpeitia. Edo, UztARRIA, Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ezkerre. Edo, posta elektronikoa honetara: uztarrria@topagunea.com

azketako ura

Neurri
bakarraJabier
Altuna

Ekainean, batek idatzitako eskutitzaz idaztera noa polemika sortzeko asmo gabe; politikaz denok dugu arrazoi puska bat, inork ez guztia.

Irakurleak Etxezarreta, *Erraibotx* Donostiako zinegotziari poltronero deitzen zion; honi buruz bi gauza:

1. Ez dut Erraibotx asko ezagutzen baina inondik ez zait poltroneroa iruditzen; DV-n azaltzen zuen nondik nora sartu zen PSOEn; Bere bide politikoaz (edozeinenaz), nahi den analisi politikoa egin daiteke eta nahi dugun kalifikatiboa jarri.

2. PSOE eta PPko zinegotzien egoera ikusita, nahiz

hala izan, poltroneroak deitzea oso gogorra iruditzen zait; esan beharrik ez, leku guztietan daudela baina partiduotan egongo dira gutxienak; poltronaz gain zerbait desagradableago jasotzeko arriskuan daude.


3. Idatzian Erraibotxek eta familiak jaso dituzten «presioengatik» Euskadi Irratiko solasaldiak uzteko asmoa azaldu zuela zihoen.

Ekintzaz eta egileei buruz (politiko baten emaztea pakean ez uzteaz) irakurleak ez zioen ezer; horrek arritzen nau. Ekintza batzuen aurrean oso kritikoak gara, batibat ingurukoak ez direnak egiten badituzte; baina

ingurukoek ezkututzen, justifikatzen saiatzen gara. Erraibotx poltroneroa dela iruditzen bazaigu hala dela esatea normala deritzot, baina zuzenak izanez eta neurri berdina erabiliz emaztea bakean uzten ez dutenak faszistak direla esan behar (fashista baita «etsai» politikoaren familia meatxatzen duena, ala ez?); norbaiti kotxea erretzea «konfliktoaren ondorioa» dela esaten bada, beste edozeini errez gero berdina esan beharko genuke, ez «gerra zikina»; biak dira bata, edo bestea neurri berdinez epaituz gero; ez bada nahi, ez dago zer esanik.

otSO beltZ

Andoni Salegi

gaia
emanda

Kilometroak

Kilometroarako heldu da garaia «hau da» gure gogoa «hau da» gure nahia igaro behar dugu egun bat alaia guztiona delako euskararen jaia.

Jendea etorriko da Azpeiti aldera herriaren oinarri delako euskera goazen gure hizkuntza zaharrari eustera berak gu behar gaitu guk ere bai bera.

Jokin Vrang

Mendizaletasunak zor dizuna eskertuz, agur Takolo

Abuztuaren 12an Joxe Urbietako *Takolo*-ren heriotz berriak erabat hunkiturik utzi gintuen bai Azpeitiko herria, baita mendizaletasunarekin loturik aurkitzen garenok ere.

Opor hilabetea izanik, ezustean harrapatu gintuen guztiak, eta herritar askok ez zuten azken agurrik emateko aukerarik ere izan.

Bere ezaguera eta izaera umilagatik oso maitatua genuen Joxe, batez ere pertsonalki ezagutzeko aukera izan genuenok.

Lagun Onak M.B.-ri erabat lotuta zegoen, eta badira, bere etxea zela diotenik ere. Hasieran juntakide bezala eta ondoren era ezberdinetako ekintzetan lagunduz, bere azken egunera arte izan zuen herriko mendizale taldearekiko lotura.

Juntakide zen garaian erosi zuten egun Lagun Onak M.B.k Elizkalean duen lokala. Erosketa hark elkartea asko indartu bazuen ere, zor haiei aurre egiteko gogor lan egin behar izan zuten. Esaterako, bi urtetan zehar arratsaldean lanetik irten ondoren tabernari lanean ibilia zen, beste juntakideekin batera, elkartea aurrera ateratzeko asmoz.

Inguruko mendiak garbi eta txukun mantentzen ere makinan bat lan egin zuen, maite zuen Izarraitz mendikatea inork baino hobe zainduz. Besteak beste, urtero ipintzen zuen Xoxoteko jaiotza eta bertako San Inazio irudiaren zaindari ere bera izan zen, margotuz eta konponduz. Lan hauek inor ere konturatu gabe, isile-

an egiten zituen Joxek, askotan eskerrik ere jaso gabe.

Joxe Takolo Azpeitiko mendizaletasunaren alor gehienetan, guztietan ez esateagaitik, aintzindari izan genuen, baita belaunaldi berrien maisu ere: esaterako, bera izan zen Izarraitzko harrobian eta Aitzbakarren lehengoz eskalatzen hasi zena, baita Pirinio eta Pikos-etako mendikateetarako bidea ireki ziguna ere, eta, zer esanik ez, goi mailako mendietan barrena ibili zen lehen azpeitiarra.

Mendian hainbat pertsona ezberdinekin ikus genezakeen, ilobekin, gazteekin, helduagoekin, beste herrietakoekin... oso gizon herrikoia baitzen eta lagunartea asko maite zuen.

Eta ez Azpeitian bakarrik, Euskal Herriko mendizaletasunean ere aski ezaguna genuen, batez ere 1980an Martin Zabaletak Everest gailurra egin zueneko espediziokide izan zelako.

Zortzi mila metroko gailurra egindakoen artean agertzen ez bada ere, hainbat espedizioetan erakutsi zuen bere lanerako borondate izugarria eta bihotz zabala. Besteak beste, Annapurna, Yalung Kang, Cho Oyu, Lhotse, Huascaran, Mac Kinley eta munduko beste hainbat menditan.

Ezagutu genuenok ondo dakigun bezala, bizitzeko izugarriko ilusioa zuen, eta mendi tontor bat egiten zuen bakoitzean lehenengo aldiz igo balu bezala gozatzen zuen.

Datorren urterako ere Gasherbrum II-ra (8.035 metro)

espedizioa antolatzen ari zen. Hori baitzen, laneko erretiroa hartzearekin batera, bere ilusioetako bat, zortzi mila metroko gailurren bat zapaltzea.

Espereintzia eta jakinduria handiko gizona genuen Takolo, batzutan lotsati eta isila bazirudien ere, bere jakinduria besteengana zabaltzen jakin duen pertsona, kanpoko mendietara zihoazenei aholkuak emanek, erakutsiz, materialak utziz... Honetaz baliatu izan gara inguruko hainbat lagun, gure mendizaletasuna suspertzterako orduan.

Beste modu batean esanda, egun Azpeitian dugun mendi mugimenduaren *errudun* nagusia izan dela esan dezakegu....

Beraz, honelakoa genuen Joxe Takolo, eskuzabala, bihotz handikoa, beti laguntzeko borondatea azaltzen zuena, denon lagun eta haserre gustoko ez zuena, sekula hutsik egiten ez duen adiskide horietakoa: eredutzat hartzeko moduko gizona. *Elurretako gizon ona* eta *kontrario*rik gabeko gizona ere deitua izan da.

Bere izaeraz baliatuz, maila eta adin guztietako jendearengana iritsi zen, guztiak lagun zituela. Honen froga dira, berriajakin ondoren Lagun Onak Elkartera iritsitako beste hainbat elkarreetako doluminak, eta Azpeitiko gazte talde batek Peruko gailurretatik bere oroimenean bidali zuten omenalditxoa:

Gizon ona eta eskuzabala beste gutxiren antzera. Zure aholku eta laguntzaz goaz gu Huascaranera. Gazteok ere segiko dugu gailurrez gailur aurrera. Eskerrik asko Joxe *Takolo* mendian ikusiko gera.

IZAERA

Bere ezaguera eta izaera umilagatik oso maitatua genuen Joxe, batez ere pertsonalki ezagutzeko aukera izan genuenok.

AITZINDARI

Joxe Takolo Azpeitiko mendizaletasunaren alor gehienetan aitzindari izan genuen, baita belaunaldi berrien maisu ere.

HERRIKOIA

Mendian hainbat pertsona ezberdinekin ikus genezakeen, oso gizon herrikoia baitzen eta lagunartea asko maite zuen

Ander Vrang

Lagun Onak Mendi Bazkunaren izenean

Uztarriaren hiru ohar:

- 1. Bazkide izatea nahi baduzu, baina zure kontu korronteko zenbakia eman nahi ez baduzu, hemen daukazu Uztarriaren zenbakia, bertan 3.000 pezeta sar ditza-zun: 2101 0029 28 0122349624 (Kutxa). Izen-abizenak eta helbidea eman.
- 2. Azpeititik kanpo bizi den senide edo lagun bat baduzu eta hark Uztarrria jaso nahiko balu, bidali haren izen-abizenak helbide hauetara: Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ezkerre, edo 227 posta kutxa Azpeitia. Bestela, behean ageri den tabernan utzi. Edota bestela, utzi mezua 15 03 58 telefono zenbakira deituta.
- 3. Eman beheko datuen txartelen bat Uztarrrian oraindik harpidedun edo bazkide egin ez den herriko senide edo lagun bati. Edozein txokotan behar du Uztarriak!



egin zaitez harpidedun
...doan!

Bidali hona datuak: Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ezkerre, edo 227 posta kutxa Azpeitia. Edo Zuhatza tabernako kaxara bota.

Izen-abizenak (etxetik batena):.....

Helbidea:

...edo, lagundu nahi baduzu,
bazkide izan zaitezke
urtean 3.000 pezeta soilik!

Bidali hona datuak: Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ezkerre, edo 227 posta kutxa Azpeitia. Edo Zuhatz tabernako kaxara bota.

Izena eta bi abizen:

Helbidea:

NAN (DNI):..... Sinadura:

Kontu korronteko zenbakia (20 digito):

Alejo Uranga

Kirol Batzordeko burua

“Partaidetza handia dugu kirol ekintzatan”

► Zeintzuk dira bi instalakuntza hauetan aukeratu ditzazkegun kirol motak?

Gure instalakuntzetan, kasu honetan igerilekuan eta kiroldegian, kirol mota hauek egiteko aukera dago: saski baloia, eskubaloia, igeriketa, squash, ping ponga, aerobika, mantenimendu soinketa, muskulazioa, aretoko dantzak, hirugarren adinekoen soinketa, karate, judo eta abar.


► Zein da bi instalakuntza hauen ordutegia?

Igerilekua, astelehenean goizez itxita egoten da eta arratsalde 2etatik 9etara irekitzen da. Egun normaletan berriz, goizeko 7etatik iluntzeko 9etara. Larunbatetan, goizez 10etatik 1etara eta arratsalde 4etatik 8etara.

Kiroldegia, astelehenean, goizez 9etatik 1etara eta arratsalde 3etatik 9etara. Egun normaletan goizez itxita egoten da eta arratsalde 3etatik 9etara irekitzen da. Larunbatetan, goizez 10etatik 1etara eta arratsalde 4etatik 8etara irekita egoten da.

► Bazkide izateko zer egin behar da?

Bazkide izateko izen emateko orri bat bete behar da datu guztiekin eta



Oporraldia amaitu eta kurtso berriarekin bat hainbat kirol ikastaro eta ekintza egiteko aukera dago herriko instalakuntzetan. **Herriko kirol azpiegiturak** eskaintzen duten kirol ekintzen berri jakin asmoz **Alejo Uranga** kirol batzorde buruarekin izan gara.

Udala

sinatuta ekarri behar da gure instalazioko harrerara argazki batekin batera. Mota ezberdinetako bazkideak ditugu, horrela batzuk 18 urtetik beherakoak dira, besteak gorakoak eta beste batzuk sendikoak, azkeneko aukera honetan 25 urtez azpiko seme alabak sar daitezke, hauek diru sarrerarik ez badute. Behin karneta lortu duzunean, karnetak bietarako balio du, hau da, kiroldegirako eta igerilekurako.

► Noiz izan dira izena emateko epeak?

“GURE INSTALAKUNTZETAN SASKIBALOIA, ESKUBALOIA, IGERIKETA eta abar EGITEKO AUKERA dago”

Berez, abuztuan eta irailaren lehenengo astean izan dira izen emateko egunak, baina ekintza batzuetan oraindik ere aukera badago matrikulatzeko. Adibidez, urrian hasiko diren ekintzetarako, areto dantzak, hirugarren adinekoen soinketa eta abar. Izen emateko egunak, irailaren 30a arte iraungo dute. Karate eta judoren kasuan, kirol modalitate hauetan parte hartu nahi izan ezker bi kirol talde hauekin harremanetan jarri behar da.

► Zeintzuk dira kirol mota arrakastatsuenak?

Orainarte, nik esango nuke, umeentzako igeri ikastaroak, aerobika, muskulazioko ariketak eta aretoko dantzak dutela arrakasta handiena, baina esan behar da beste ekintzetan ere partaidetza handia dugula. ■

Euskara azpeitiar guztien erronka

Udal Euskaltegiak matrikulatzeko epea zabalik dauka

► Udal Euskaltegiak aurki 2000-2001eko ikasturteari ekingo dio ► Azken urteetan Euskaltegiak kalitatearen apustuari heldu dio ► Udal Euskaltegiak eskaintza berri-tu du eta ikastaro berriak antolatu ditu.

Udala

Euskarak inguruan dituen hizkuntzekin duen lehia izango da Udal Euskaltegiaren aurtengo matrikulazio kanpainaren mezua: *Euskara jokaldirik onena! ¡La mejor jugada!*. Nekane Larrañaga udalaren kultura batzordeburu eta Euskara Patronatuaren lehendakariaren hitzetan «euskarak aurrera egin nahi badu, euskaldunek eta azpeitiarrek euskararen aldeko apustua egitea behar beharrezkoa da. Eta udal euskaltegiak erronka pertsonal horri aurre egiteko bitarteko guztiak eskaintzen ditu. Bide horretatik egungo azpeitiarren beharretara egokitutako ikastaroak emango ditu udal euskaltegiak 2000-2001 ikasturtean».

Kalitatea

Udal Euskaltegiaren arduradunen hitzetan «azken urteotan Euskaltegiak apustu berria egin du: Kalitatearen apustua. Egun, eta hemendik aurrera zer esanik ez, euskara esparru berrietara zabalduko da. Esate baterako, piskanaka-piskanaka, euskara lan munduan sartzen ari da, eta etorriko da euskara lan munduaz erabat jabetuko den eguna». Pello Elorza Euskaltegiaren zuzendariak esan digunez «hemendik aurrera ez da nahikoa izango euskaraz jakitea,



izan ere, lana euskaraz egiteko, hizkuntzaren ezagutza sakonagoa izan behar da, eta hori ez da lortzen EGA tituluarekin bakarrik. Horregatik, Euskaltegiak euskararen kalitatea lantzeko Iturri-Onetik I eta II ikastaroak antolatu ditu».

Eskaintza zabala

Azken urteotan Udal Euskaltegiak zeharo berri-tu du bere eskaintza: euskalduntzeko, alfabetatzeko eta EGA ikastaro klasi-koekin batera enpresetan lana euskaraz egiteko, informatika munduan euskara erabiltzeko eta euskararen kalitatea hobetzeko ikastaro berriak antolatu ditu. Gazteentzat nahiz nagusientzat dituzte ikastaroak: gazteentzat aurtengo lehen aldiz internet eta posta elektronikoa euskaraz erabiltzeko ikastaroa antolatu dute; haurrak dituzten nagusientzat berriz, ipuin kontaketa ikastaroa ere eskaintzen dute. Ikastaro hau iaz 15 la-

gunek egin zuten eta oso gustorara aritu ziren. Aurtengo ildo beretik beste ikastaro berri bat antolatu du Euskaltegiak: umeen jolasak eta kantak. Era berean Herri Administrazioako 1.; 2.; 3. eta 4. hizkuntza eskakizunak lortzeko ikastaroak ere emango dituzte. Euskaltegiako zuzendariaren esanetan «euskaltegiak daukagun talde didaktikoa osatzen duten irakasleek 10 urtetik gorako eskarmentua daukate euskararen irakaskuntzan. Horrek hain zuzen, babes eta itzal handia ematen dio euskaltegiari eta lantalde horrek egindako lanetik sortu dira azken urteotan abian jarri ditugun ikastaroak».

Egoitza berria

Joan den ikasturte-tik Udal Euskaltegiak egoitza berria dauka. Harzubia hiribidean zuena utzi eta Perdillegi kaleko 3.ean kokatu ditu ikasgelak: orain gutxi arte Institutua zenaren egoitza. Azken urteotan izandako ikasleek hazkundea da etxe aldetaren arrazoirik nagusia. Iazko ikasturtean, esaterako, Euskaltegiak 20 ikastalde izan zituen eta 250 ikasleri eman zien zuzeneko zerbitzua. Egoitza berriak orain arteko zerbitzu guztiak toki bakarrean egotea ahalbidetuko du eta, euskaltegiako arduradunen esanetan, neurri handi batean, euskaltegiaren erabiltzaile guztientzat erosotasun eta zerbitzuaren kalitatea hobetzea ekarriko du.

Matrikula epea zabalik

Udal euskaltegiak irailaren 29ra arte izango du zabalik matrikulatzeko epea. Izen-ematea euskaltegiaren bertan egin daiteke edo telefono bidez: 943 81 19 47. ■

motxien


Morillok Igartza bekaren hirugarren edizioa irabazi du

Fernando Morillo idazle azpeitiarrak jaso du aurtengo idazle hasiberrientzako Igartza beka. Saria 500.000 pezetakoa da. Joan den irailak 14an jaso zuen sariaren erdia eta garai-kurra. Sari honekin, Morillok dagoeneko 25 sari irabazi ditu.

Nuarbek Munduko Sokatira Txapelketan zilarrezko domina lortu zuen

Nuarbeko sokatiralariak Blackpool-eko Mundu Txapelketan, 640 kilotan zilarrezko domina lortu dute. Orain arte Nuarbek Munduko Txapelketa batean lortu duen posturik onena pisu horretan. Nuarbek suitzarren aurka bakarrik galdu zuen azken tiraldian. 640 kilotako zortziko taldea, Joxe Luix Garate, Xebax, Patxi eta Pedro Gurrutxaga, Andoni, Ibon eta Jexux Etxezarretak eta Migel Anjel Urtuzagak osatu zuten, Iñaki Altuna entrenatzaile lanetan eta Aitor Olaizola laguntzaile zutela aritu ziren. 560 kilotan berriz, Goierriko bizkaitarrekin batera, sei garren postua lortu zuen. Pasa den irailak 19an, Nuarbeko sokatira taldeak herri afari eta guzi herritarren ongiatorri beroa jaso zuen Nuarben.

erretratutan



PEDRO ARANBARRI


Ingurugiro sentsibilizazio suspertuz ikastaroan

Gipuzkoako Mendi Federakuntzako Ingurugiro sailak antolatuta, Pedro Aranbarri Koordinatzaile bezala eta Udaleko ingurugiro sailaren babesean, uztailan zehar, 24 egunetan Ingurugiro Sentsibilizazioa 2000 Ikastaroak egin ziren.

Bertan zortzi herritar gaztek parte hartu zuten, inguruko bazterrak eta arazoak ezagutuz.

Azpeitiko udalak, herri-tarrak konzentrazioa deitu zituen abuztuaren 9an, Jose Mari Korta zumaiarra, Korta enpresako burua eta Adegiko lehendakariaren kontra ETAk egin-dako atentatua salatze-ko. Enparantza nagusian egin zen konzentrazioa eta jende multzoa bildu zen bertan.

Kortaren atentatuaren kontrako konzentrazioa



ENEKOITZ ESNAOLA

Jokin Urangak Lizardi saria irabazi du

Zarauzko XXIV. saria jaso zuen, pasa den irailak 1ean Jokin Uranga azpeitiar bertsolari gazteak. Lizardi sariaren finaleko bertso saioa izugarria izan zen. Gaiak ere egokiak izan zituzten, finalera heldu ziren bertsolari gazteek, gaiak eta giroak lagun-duta bertso politik entzun izan ziren finalean. Kartzelako gaian Felix

Iñurrategi mendizaleari omenaldi-txoa egin zitzaion, *Orain 17 edo 16 urte hortxe zegoen zu orain zauden lekuan, kartzelako lana egiteko prest jarrita, gai bezala jarrita.*



DIARIO VASCO

Bailarako artisten artelanak erakusgai

KMK'00en antolaketa-ren barruan Urola bailarako artisten artelanak daude erakusgai eta salgai udal-txe azpiko era-kustaretoan. Erakusketaren inaugurazioa irailak 15ean egin zen eta irailak 29a arte irekita izango da. Bertan bailarako 23 artistaren lanak daude ikusgai.

Kilometro egu-nean ere erakusketa ibilbidean izango da.



ION ARANBURU

motxean

Urrakira igoera 40 gidarik bukatu zuten

Gasolina usaina eta motor zarata nagusitu ziren berriro ere Urrakin. Herritar ugari hartu zuten parte lasterketan, Andoni Orueza-bal, Jabier Lasa, J.I. Azkune, Ander Garate eta Peio Izagirrek. Herritarren artean azkarrena Andoni Orueza-bal izan zen BMW M3arekin. Ander Garaterekin ikuslegoa oso gustora gelditu zen egin zuen igoera ikusgarriarekin. Sailkapen orokorrean ere postu onean gelditu zen, hamargarren postuan. Lasterketan zehar istripuak gertatu arren ez zen zauritu larririk izan. Ikusle kopuruarekin ere antolatzaileria, Lagun Artea eskuderia, gustora agertu zen, 5500 inguru izan baitziren.



Joxin Arruti Martutenetik El Duesora eraman dute

Joxin Arruti preso azpeitiarra Martuteneko espetxean zegoen pasa den Martxoak 18tik. Irailaren erdialdera El Duesora eraman zuten.

motxien

**Mixio taldeak
Santiyotan
bildutako dirua
Ruandara bidaliko
du**

Santiyo egunean, txekorra dela eta, Azpeitiko mixio taldeak bildu zuen dirua, 148.710 pezeta izan zen. Dirua, Ruandan dagoen Segundo Aizpuru urrestildarrari bidaliko diote, bertako egoera larria dela eta. Mixio taldeko partaideak, «hau posible izaten lagundu duten guztiak», eskertu nahi ditu.

**Jubilatuen astea
ospatuko da
urrian**

Urriak 9tik 15ra Aitonak jubilatuen astea ospatuko du, Azpeitiko udalak lagunduta. Asteazehar mus, tute eta punttu txapelketak, ibilaldiak, hitzaldiak, txokolatada eta Loiolan bazkaria izango dituzte besteak beste.

erretiraturak

**Tabernarien konzentrazioa
presoen eskubideen alde**



NEREA URANGA

**Irailak 16an
herriko
tabernarien**

Elkarteak hainbat ekintza antolatu zituen Euskal Presoak Euskal Herrira lemapean. Tabernako ateak itxi zituzten arratsaldean ordubatez. Tabernak itxita zeuden bitartean Enparantza Nagusian konzentrazioa burutu zen *Guztion, tabernarion konpromezua handituz Euskal Presoak Euskal Herrira* lemapean, bertan herriko tabernariez gain hainbat herritarrek ere parte hartu zuten. Gauean Azido eta La Polla taldeen kontzertua izan zen herriko plazan, tabernariek antolatuta eta eurek egunean zehar antolatutako ekintzei amaiera emanaz. Kontzertuan jende ugari izan zen herriko plazan.



HORTZ KLINIKA

Dr. Antonio Rafaniello

- Odontologi Orokorra.
- Odontologi Estetikoa.
- Ahozko Zirujia.
- Inplante integralak.
- Protesis mugikorraren sustituzioa, protesis fijora.
- Pieza gabekoa, sustituzioa pieza fijora.

Enparan n°8 - 1º Tel.: 81 67 36



**Harategi
Especializaturia**



Arana kalea, 14 - Urrut.: 943 81 10 15

ICIAR SAN JUAN



**Solarium bertikala
Estetika**

Loiolabide, 19 beheka AZPEITIA Tfno.: 943 81 02 17

LUBA

- AHOLKULARITZA FISKALA,
- LABORALA, KONTABLEA
- ASEGURAK
- FINKEN ADMINISTRAZIOA

Emparan kalea, 30
Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75
e-mail: luba.ase@euskalnet.net

OLAKOR
gozotegia

Urbitate Auzunea, 1 - 20730 AZPEITIA (Gipuzkoa) - Tfno.: (943) 81 46 65



Hau da Kilometroak 2000



Ikasberri Ikastolan emango zaio hasiera KMK'00ko ibilbideari.

Herri inguruetan barrena

Goizeko hamarretan irekiko da ibilbidea

► 100.000 lagun espero dituzte KMK'00ko antolatzaileek ► Azpeiti eta Azkoiti inguruetan 16.000 auto eta 600 autobusentzako lekua aurreikusita dago ► Ibilbideko zazpi gunetan denentzat denetik izango da.

Nerea Uranga

az urruti ikusten zen, 2000ko urriak 1a, herrian Kilometroak ospatuko zen eguna. Baina jada esku bakar batez konta ditzakegu Kilometroetarako falta diren egunak, bezperako egunetan gaude.

Kilometroetan 100.000 lagun espero dituzte antolatzaileek, Mailu Gurrutxaga KMK'00ko koordinatzailearen esanetan, «100.000 lagun espero ditugu, baina eguraldiak eta ospatzen

diren lekuak ere eragina izaten dute Kilometroetara datorren jende kopuruan».

KMK'00 habian

Kilometroen inaugurazio ekitaldia 9:30etan egingo da Ikasberri ikastolan eta 10:00etan zinta mozketarekin ibilbidea irekiko da. Zirkuituari buelta osoa eman eta gero, Ikasberrin bertan datorren urteko Kilometroak antolatuko dituen Beasaingo ikastolari lekukoa pasa eta omenaldiari ekingo zaio. Aurtengo Kilometroetan hainbat pertsona omenduko dira: batetik Euskal Herriko bost lurraldetan ikastolaren alde ihardun duten bost pertsona; Azpeitian orain dela 35 urte ikastolaren sorreran lan egin zuten Inaxio Mari Olarte, Patxi Azkargorta eta Anbrosio



NEREA URANGA

Goenaga eta Ikasberri ikastolako lehen batzordea osatu zuten hamairu lagunak izango dira omenduak.

Ikasberri ekitaldiak aurrera egiten duen einean, Euskal Herriko herri eta txoko ezberdinetatik jende andana hurbilduko da herrira. Autoak eta autobusak gehituz joango dira, eta hauek ondo aparkatu eta trafikoa zuzentzen lagun-talde ugari arituko da bai Azpeitian eta baita Azkoitian ere. Autoentzako leku arazorik ez dela izango pentsatzen dute antolatzaileek, «Jendea ibilbidera hurbilduko duten autobus lanzaderak ibiliko dira Danonatik, Urrestillatik eta Azkoitiko GSBtik. Lekua izango da aparkatzeko, 16.000 autorentzako eta 600 bat autobusentzako lekua aurreikusten baitugu.

Gainera, herri guztietako talde eta erakundeei deia egin diegu Kilometroetarako autobusak antolatzeko». Aparkalekuak, Landetako industrialdean, Lan Mobil atzean, Marcial Ucinen, Berdelarin, perretxikoan, Basarteko industrigunean, Eroskin eta Azkoitian herri guztian zehar kokatuko dira.

Denean denetik

Ibilbideak ia zortzi kilometro izango ditu. Ikasberri ikastolatik hasi eta Azkoitirako norabidea hartuko du, Berrosteta baserriaren inguruan ibaia gurutzatu eta Loiolarako bideari ekingo dio trenaren bide zaharretik, Loiolatik eta atzeko bidetik Sanjuandegira, Sanjuandegitik Garmendi baserritik Goenako kanpara, handik Larre baserriko bideari ekin eta Lan Mobil atzeko kanpatik Kiroldegi atzera, handik bueltan Loiolabidetik berriro Ikasberriara.

Ibilbidean zehar zazpi gune daude, Ikasberri, Azkoitira bideko autoeskolan, Loiolan, Goenako kanpan, Lan Mobil atzeko kanpan, Anexon eta herriko plazan. Gune guztietan ume, gazte eta helduentzako ekitaldi eta ekintzak antolatu dira, «Denetan denetik izatea aurtengo Kilometroen berezitasuna da. Gure nahia ibilbidean batetik bestera jendea mugitzea da. Horretarako, leku guztietan denek aukera izatea nahi izan dugu», dio koordinatzaileak.

Guneetan, musika ekitaldi desberdinez gain, bestelako ekintzak egiteko parada izango da, hala nola, Ikasberri 30 metrotako igerileku handia muntatuko da piraguetan ibiltzeko. Lan Mobil atzeko kanpan abentura eta sentsazio gogorrek gogoko dituztenentzat puenting-a egiteko aukera izango da, 80 metroko bi garabi muntatuko baitira, eskalatzeko rokodromoa ere izango da. Goenan berriz karting-en zirkuitua izango da motorzaleentzat. Bestalde, ibilbidean gustu guztietarako jan eta edanaren falta-rik ez da izango. ■

Datuak

7,8 kilometro ibilbideak

Ehun mila pertsona espero dira Kilometroetan, jende oldea herrian hartzeko moduak jarri behar:

IBILBIDEA ○ KMK'00ko ibilbideak 7,8 kilometro izango ditu, lau da eta elbarriak egiteko modukoa. **Zazpi gune** izango dira ibilbidean zehar Ikasberri, Autoeskolan, Loiolan, Goenako kanpan, Lan Mobil gaineko kanpan, Polikiroldegi atzean eta Enparantza Nagusian.

LANEAN ○ Kilometroetan 2.000 pertsona inguru arituko da lanean ibilbidean zehar. **Zereginik ez da** faltako, trafikoa zuzentzen, aparkalekuak antolatzen, txosnetan eta otartekoak egiten besteak beste. Trafikoa zuzentzen eta txosnetan ariko da jende gehien lanean.

BAZKARIA ○ Bazkaritarako 3.000 pertsonentzat lekua izango da. **Sagardotegi menua** polikiroldegian 900 bat lagunentzat, paella ikastolako kanpan 1.200entzat, Kirurin menua 700 bat lagunentzat eta Uranga jatetxean menu berezia 200 lagunentzat. Gero, gune guztietako tabernetan otartekoak izango dira salgai eta euskal jakiak dastatzeko modua Euskal labelaren gunean.

APARKALEKUAK ○ Herriak ez du tren zerbitzu on bat, hau dela eta, gainontzeko garraio publiko eta partikularrek eduki dituzte kontuan antolatzaileek. **16.000 auto** eta 600 bat autobusentzako aparkalekuak topatu eta moldatu dituzte Azpeiti eta Azkoitian. Jendea ibilbidera gerturatzeko autobusak antolatu dira Azkoiti, Urrestilla eta Danona aurretik.

“Pentsaezina lortu eta ustekabeko ateak ireki ditugu”

► Ze lan betetzen du Kilometroak batzordeko arduradunak?

Kilometroen antolaketa Azpeitiko Ikasberri ikastolak jaso genuenean, geu hasi giñen lanean batzordetik. Titularra ikastolako batzordea da, eta jai eguna izanik jarraipen zehatza egin behar zaio, baina egunerokotasunak ere jarraitu egin behar du. Barne antolaketa bat egin genuen, baten batek izan behar eta nirekin kontatu zen. Urduritasunarekin baina, ilusioak gairatu egin du. Merezki izan duen *reto* bat izan da eta da.

► Noiz hasi zineten Kilometroak 2000 antolatzen?

96an 700 miloiko inbertsioa egin beharra izan genuen eta Ikastolen Elkarteari eskaera egin zitzaion, behar premiazkoa genuela-eta. 97ko udazkenean hasi giñen eskaera egiten, 98an eskaera gehitu eta hobetu egin genuen eta aurtengo Kilometroen antolaketa lortu genuen 99an. Mailu Gurrutxaga aukeratu zen koordinatzaile 99ko apirilean, arduradunak eta abar izendatu ziren.

Iñigo Agirre KMK'00 bezpera egunetan ez da erraza harrapatze-ko, batetik bestera dabil **batekin zein bestearekin geldituz eta** azken zertzeladak konpontzen.

Ikastolaren festa erraldoiaren antolaketan burubelarri.


Nerea Uranga

Guztira hamalau lantalde aritu gara lanean, arlo desberdinak ikutzen dituzten lan taldeetan banatuta.

► Urte gogorra izan al da, lan asko egin beharrekoa?

Bai, dudarik gabe, bilera

pila bat. Baina lagunarte giro onean ematen ari gara, Zuriñe Mendizabal da Ikastolen Elkartetik jarraipena ematen ari dena, eta berak ere aipatu izan digu, taldeko eta talde-buruan giro oso ona ikusi duela. Denok ere *billeritis* harrapatu dugu. Talde batzuk lehenago hasi ziren lanean, beste



“IBILBIDEA LAUA DA DENA ASFALTATUA EZ BAINA todouno da ELBARRIAK ERE egiteko modukoa”


batzuk beranduago, benetan esperientzia aberasgarria da. Pentsatzen ez genituen gauzak lortu, uste ez genuen ateak zabaldua aurkitu ditugu.

► **Nola aukeratu da ibilbidea?**

1979.ko ibilbidea kontuan izan dugu, baina ordunik Ikastolen Elkar-tearen baldintzak asko aldatu dira. Gero Lagun Onak M.B.ko Mikel Ibarzabal eta Pako Lertxundik euren iritzia eman zuten. Horrela, arauak betetzen saiatu giñen. Ibilbide laua, dena asfaltatua ez bada ere, *todouno* da, elbarriak ere egiteko modukoa.

► **Zerk eman du lan gehien Kilometroak antolatzerakoan?**

Nik, muntaiak esango nuke. Sail bakoitzak dauka bere lana, baina muntaiak lan handia eman digu eta jestio lan handia gainera. Ibilbide osoan ez daukagu atzerik, 99an Jaso ikastolak antolatutako Nafarroa Oinezaren karpak ikusi genituen eta ideia jaso genuen. Karpak lortzeko nahiko jestio egin dugu, Gipuzkoan, Paris, Lion, Sevillan ibili gara bila. Azkenean Sevillatik ekarriko ditugu. Gero geuk, ogitartekoak egiteko *txapak* egin ditugu, gure filosofia hori da: egiten



“**GU, AZKEN
EGUNEAN GAUDE,
EGUN
LUZE
XAMARRA BAINO,
urduritasunean
SARTUTA
azken txanpan**”

dugun lana hurrengo urterako ere hor izango da.

► **Azken uneko lanetan ariko zarete, ze lan dira hauek?**

Gu esaterako azken egunean gaude, egun luze xamarra baino. Urduritasunean sartuta, azken txanpan. Oporrak aurretik egiten ez dena gero kontuz. Gestio lan guztiak eginda ditugu, taldeetan eta taldeburuan erabakiak hartuta.

► **Eta eguncan bertan, lanetan?**

Koordinazio zentruan egongo gara, hemen ikastolan. Ibilbidean zehar gauzak nola doazen jarraipena egin eta ezus-

tekorik bada lehenbaitelehena konpontzen saiatuko gara. Eta ahal bada, eguna bera ospatuko dugu.

► **Eta gero, jai eguna pasatu ondoren?**

Lan gehiago. Horrelako muntaia bereziak, desmuntaia eskatzen digu. Ingurugiro aholkua mantenduz, garbiketa oso sakona egiteko asmoa dugu. Eta txakoli botela fresko batekin ospatuko dugu. Hala ere, ia urtearen bukaera arte izango gara lanean, lana guztiz amaitu bitartean. Izan ere, kontuak itxi eta txostenak prestatu beharko baititugu. ■

Urtean zehar hainbat ekitaldi antolatu ditu Kmk'00k



Aurkezpen prentsaurrea ◆ KMK'00 aurkezpena egin zuten Ikasberri Ikastolako arduradunek Donostian Kurtsal jauregiko Martin Berasategi jatetxean abenduak 2an.



Aurkezpen ekitaldia ◆ Abenduak 3an Izarraitz pilotalekuan egin zen, hainbat herri-tar ezagunek parte hartu zuten, KMK'00 arropa erakusteko egin zen desfilean.



Himalaya, kirola eta etika ◆ Mahaingurua izan zen Soreasu antzokian, Juanito Oiarzabal, Kike de Pablo, Josu Bereziartua eta Joxe Urbieta Takolo aritu ziren.




Bertso antzerki jaialdia ◆ Izarraitz pilotalekuan, gai bezala *hauteskundeak* Azpeitian; *txuria, gorria eta berdea* hartuta. Herriko 13 bertsolari aritu ziren bertsoan.



Rally sprinta ◆ Urrakiko errepidean rally sprinta izan zen martxoak 18an. Herriko hainbat gidarik parte hartu zuten, antolatzaile lanetan laguntzen Lagun Artea eskuderia ibili zen.



Elkarteetako sukaldaritza hitzaldia ◆ Enparan Dorretxean izan zen apirilak 6an, hizlari Juan Mari Arzak eta Alberto Elorza sukaldari ezagunak aritu ziren.



Makailau lehiaketa ◆

Herriko elkarte ugarik parte hartu zuten. Irabazlea Imanol Aramendi izan zen.



Estropadak ◆

Zumaian izan ziren ekainak 4an KMK'00en alde. Arraunlari talde ugarik parte hartu zuten.



Pilota jaialdia ◆

Izarraitz pilotalekuan. Goñi II-Berna; Olaizola II-Lasa III aren aurka aritu ziren.



Abestiaren aurkezpena ◆

Donostian aurkeztu zen KMK'00tako abestia, ekainak 29an.



24 ordu pilota txapelketa ◆

24 ordutako esku pilota txapelketa herrikoia izan zen Fronto Txikin.



Apustua zezenplazan ◆

Korrika apustua egin zuten Diego Garziak eta Andoni Egañak, Egaña izan zen garaile.



Futbol partidua ◆

Euskadiko beteteranoen selekzioa, Farntziaren aurka. Enaitza Euskadiren alde 5-2.



Benito Lertxundi ◆

Benito Lertxundiren kontzertua izan zen polikiroldegian Kilometroen alde.



Rock kontzertua ◆

Ikasberrin Su ta Gar, Lin Ton Taun, Seghabator eta Legen Beltza taldeekin.

Ibilbidea

kmk/00 urriak 1
Azpeitia



Egitaraua



SAPOA

XOXOTE

XAKELA

KAKUTE

AKERRA

ERNIO

MAKILA

MURUMENDI

TRAPUZARRAK

ERTXIN

IN

09:30

Zirkuitu irekiera

10:00

Txalaparta

10:30

Iparraldeko jokoak

Herriko Banda

11:00

Arima Beltza

Esataria

Ikus

11:30

Zabale anaiak.
Dantza suelta
(Euskadiko txapeldunak)

Hazparneko
gurasoen emanaldia

Txan Magoa

12:00

Txatunga Benbe hasi

Arpanlariak

Bertsolari gazteak

Itsa

12:30

Basilikan org/koral emanaldia

13:00

Triki ta ke

Sahatsa dantza taldea

Txatunga Benbe bukatu

13:30

Kiki, Koko, Moko
eta Flash

Nekez

14:00

Petti

14:30

Oilaloka Show

Txanbela

Fundiziyue

15:00

Amalur Taldea
Kirurin

Txatunga Benbe hasi

Hissopus

15:30

Eztanda

Erramun
Martikorena

Imuntzo eta Beloki

Tiobibo

16:00

16:30

17:00

Bide Ertzean

Txat

17:30

Asgath

Anje Duhalde

Kukubiltxo

Etzakit

18:00

Zirkuituan zehar:

18:30

Txatunga Benbe, dultzaineroak, txaranga, ttuntturrioak, artisauak, antzinako autoen erakusketa, 40 trikitilari, hankapaluak, Artelan hankapalo eta erraldoiak, txikientzako animazioa (aurpegi margoketa, marrazkiak...), arte erakusketa, parapenteak, piraguak, uso mezularia, henna eta fimo tailerrak, txistulariak, Gorritiren abereak, bailarako erraldoiak...

19:00

19:30

20:00

Egunean zehar:
Olaberriako
karting-a

Egunean zehar:
Super jauzia
Izotz eskalada
Rokodromoa
Rapel, Tirolina...

OXOTE GUNEA
ASBERRI
TIKO IKASTOLA

EUSKO LABEL
KALITATEA
EUSKO LABEL GUNEA

ARROA
MENDI ENPARANTZA

motozerrak

ntza taldea

olariak

Bada

Kirolak

enbe bukatu

garri

Bellum 9

Irailerako 6

Bukaera

- 1 Antzinako auto eta motoen erakusketa
- 2 Piraguak
- 3 Arte erakusketa eta salmenta
- 4 Artisauen azoka
- 5 Ingurugiro karpa

7 ENPARANTZA

INDAMENDI GUNEA

MURUMENDI GUNEA

ERTXIN GUNEA

Donostia
sarrera

XOXOTE GUNEA



KAKUTE GUNEA



ERNIO GUNEA



MURUMENDI GUNEA



ERTXIN GUNEA



INDAMENDI GUNEA



ENPARANTZA



S Sarrerak

Tiketak

i Informazioa

Bazkariak

WC Komunak

Bokatak

Eszenatokia

Izozkiak

+ Gurutze gorria

Goxokiak

Edariak

Salmentak

35 urte herrian

Hainbat oztopo gainditu zituen
herriko lehen ikastolak



Lehen ikastolaren sortzaileetako bi, Azkargorta eta Olarte.

LEIRE LARRANAGA

A haleginak izan zituen bere fruituak, 1965-66an haur gutxi batzurekin martxan jarri zen ikastola.

Burubelarri, ikastola sortzen aritu zirenak Inaxio Mari Olarte, Ambrosio Goenaga eta Patxi Azkargorta izan ziren. UZTARRIA-koak eurengana jo dugu sorreraren berri jakiteko, ordea Ambrosio Goenaga kanpoan izan-eta beste biek hitzegin dugu.

Ikastolaren sorrerak izan zuen makina bat lan eta katramila. Ikastola sortu aurretik elizako kongregazioan euskara eta euskal kultura sendotzearen aldeko pausuak emanak ziren, «Sail batzuk sortu ziren: euskal

► Herrian ikastola sortzeko lehen urratsak orain 35 urte eman zituzten Azkargorta, Goenaga eta Olartek

► Oztopo ugari izan zituen ikastola hasi berriak

► Sortzaileen ametsa eskola-laurretik euskal unibertsitatera heltzea zen.

Miren Epelde

kultura jorratzen zuena, helduen alfabetatzean aritzen zena, horretan Juanito Goikoetxea Txikiye ibili zen. Dantza taldea ere bazen Karmelo Etxegarai izenekoa, gero ikastolak hartu zuen izena».

Euskaltzaleengana

Txikienekin lanean hasteko ideia ere Kongregazioan sortu zen Olarteren hitzetan, «Haurrek ikasketa guziak gaztelaniaz jasotzen zituzten, jolasean-eta erdaraz aritzen ziren, zenbakiak ere erdaraz zekizkiten. Ikastola sortzeko ordea, diru bila hasi beharra zegoen. Horretarako norena jo? ba, euskaltzaleengana. Zuzenean Patxi Azkargorta eta Ambrosio Goenagarengana jo genuen».

Ordurako hainbat herritan ikastola hasi berriak baziren, lehenetakoa Lazkaon sortu zen, Erreterian, Zarautzen eta Deban ere bazen ikastola, «ikastoletako ordezkarien artean egiten ziren bileretara joaten giñen. Ze pauso eman behar ziren, ze oztopo aurkituko genituen jakiteko».

Sortu berri ziren ikastolak ere bisitatu zituzten sortzaileek, eta ezezagun zuten pedagogia bat aurkitu zuten, «ez zen ezagutzen genuen pedagogia klasikoa. Jolasean eta jolas giroan ikasten zuten. Garai hartan herrian sikologo eta sikiatra batzuekin hitzaldiak antolatzen genituen gurasoentzat. Hitzaldietara euskaltzaleak zirenak eta euren haurrak ikastolara bidaltzen arriskatu zutenak gonbidatu genituen».

Legez kanpo

Garai gogorrek pasa zituzten ikastolaren sortzaileek, «lehe-

**Ikastola sortu berrien
bisitan pedagogia berri
batekin aurkitu ziren
ikastolaren sortzaileak
«jolasean, jolas giroan
ikasten zuten haurrak»**

**Lehen ikasgelak
Zentenario etxeko
lokaletan izan ziren,
gero Loiolan**

nengo pausoak zailak izan ziren, baina hizkuntza bat dakienak, hizkuntza horretan errazago ikasten du». Ikastola legez kanpo zegoen, gurasoen pentsakera ere zalantzarazkoa zen, ekonomi arazoak zituen ikastolak eta material beharrean zegoen, irakaslerik ere ez zen euskaraz irakasteko prestatuta. «Euskal kulturako taldean zeuden bi, Kontxu Odriozola eta Mari Tere Garmendia joan ziren, ikastoletarako irakasleak prestatzeko Donostian sortu zen egoitzara».

Ordea, haur gutxirekin hasi zen ikastola, pixkanaka indartuz joan zen eta Zentenario etxeetako ikasgelak txiki geratu ziren. Legearekin ere topo egin zuen, ispixioak pasatzen hasi ziren ikastolatik. Angiozartik andereino euskaldun bat ekarri zen Maria Angeles, eta Presen Aizpuru, gerra aurretik magisteritza egina zuenak, titulua eskaini zuen ikastolaren alde, «bolada batean, Gipuzkoan ikastolak itxi zituzten. Hori ikusirik, elizari heltzea pentsatu genuen eta elizaren aldeko babesa hartu genuen. Orduan, Konkordatuak bere eskolak eduki zitzakeen, dotrinara etorriko balira bezala. Baina, elizaren gain ez zegoen ikastola, gure esku zegoen eta hori zen guk nahi genuena».

Leku beharrean, sortzaileak ➤

Euskaltzaleak 'ultrak'

Ikastolaren sortzaileek ikastola sortzeko lanean ari ziren bitartean, gozoak ez zirenak entzun behar izan zituzten zenbait herri-tarren ahotik, Azkargortak kontatu bezala, «garai hartan frantsek hor zebiltzan borrokan Argelia utzi edo ez utzi, 'ultra'k Argeliari askatasuna eman nahi ez zietenak ziren. Orduan 'ultra' izena ahotan ibiltzen zen. Ta Azpeitian 'ultras'... ustez kategorizko gizon bat bazen, alde hortatik atakatu gintuena Anbrosio Goenaga eta ni. Gu giñela

Azpeitiko 'ultras', ikastola sortzeko lehenengo pausuak ematen genbiltzalako». Entzuteko gozoak ez ziren hitzak entzun behar eta egiteko makina bat gaziak gertatzen zirenak egin behar ordea, «Ikastola sortzeko dirurik ez-eta nola edo hala hasi nahi genuen, eta eskean irten behar... eta irten genuen bezala gainera, dendarik denda, fabrikaz fabrikara». Azpeitian ikastolaren sorrerak, sortzaileak kontatu bezala, izan zituen une gazi eta gozoak.



Ikastola hasi berriko ikasle gazteak eta andereinoak.

Lehenengo batzordea

Ikastola sortu berria handituz joan zenean, kontuak orduarte bezala ezin jarraitu eta kooperatiba sortu zen, kooperatibarekin batera, batzordea osatu zen.

Aurren-aurreneko batzordea, gurasoak, irakasleak eta elizako ordezkariak osatu zuten: Iñaki Eizmendi Txapel, Manuel Azkoitia, Anbrosio Goenaga, Patxi Azkargorta, bi andereinoak Kontxu Odriozola eta Mari Tere Garmendia eta Inaxio Mari Olarte izan ziren. Gero elizaren ordezkari bezala, Juanito Goikoetxea eta

aztertzaile Aita Elizegi jesuitak ere ihardun zuten batzordearekin bat lanean.

Batzordea osatuko zutenak gurasoak izan behar zirela erabaki zen ikastola sortu berrian, Olarteren hitzetan, «Ikastolan, gurasoa zen haurraren gain agintzen zuena. Ikastolak gauza berri bat ekarri zuen, gurasoak ziren egin eta desegiten zutenak. Erabaki zen gurasoak osatu behar zutela batzordea eta zerrendak aurkeztu eta beraiek aukera zitzatela ordezkariak».

Gogarte etxearen eskaria egin zuten, hutsik zegoela-eta. Eskaera Erromaraino heldu zen eta handik baita baimena etorri ere, «Garate, Bergara eta beste jesuita batzuen bultzada izan genuen. Elizak bere ordezkaria jarri zigun, Jose Lasa, honek lan asko egin zuen ikastolak legeztatzeko».

Eskolaurretik unibertsitatera

Sortzaileek etengabeko lana egin behar izan zuten garraioa, jangelak, irakasleen soldatak, gurasoen heziketa, kirola eta udalekuak antolatzen, «gure ametsa zen, eskolaurretik hasi eta euskal unibertsitatera hel-tzea».

Ikastolaren indartzeak, antola-keta handitzea ekarri zuen sortzaileen hitzetan, «diru handiak, bola handitu zuen, beste maila bateko erakundea eskatzen zuen, horretan ikastola kopera-tiba sortu zen. Helburua, kristau hezieran haurrak beren ikaske-tak euskaraz egitea zen». Ikastola kooperatiba egin zene-an sortu zen lehen batzordea.

Sortzaileek gibelera begiratu eta ikastolaren sorrera garaiak pozez gogoratzen dituzte, «ederra huan, poza gelditzen da. Euskarari bultzada eman genion».



Ikasberri Ikastola .

LEIRE LARRAÑAGA

Ikasberriren izaera

Ikasberri ikastola 400 familia eta 580 ikaslerekin sortu zen, koope-ratiba bezala egituratuta, Mirari Bereziartua Ikasberriko zuzenda-riaren esanetan, «Proiektuaren erantzukizuna gurasoak daukate-lako kooperatiba bezala egitura-tuta sortu zen. Hor baliabide kon-prometitua langileak dira, ezin delako egun Euskal Herrian horrelako proiektu bat aurrera atera konprometitu gabeko per-sonalarekin».

Ikasberri ikastola birsortzeko bi arrazoi azaltzen dituzte sortzaile-ek, «batetik, ikastolaren ezauga-riak mantentzeko zen. Momentu-ko egoera juridiko-politikoak ikusi-

ta ez genuen uste, hori inoren esku uzteko moduan geundenik. Pentsatu besterik ez dago ea nola ikusiko genukeen orain, PP edo PSOE gobernuan balira, herri honen nortasunaren bermea nola lor daitekeen. Pasa daitezkeen gauzak dira. Guk geuk eskuetan edukitzeko erabakia mantendu nahi genuen. Eskola berri baten alde geundelako, erabat barrutik aldatutako eskola bat, aldaketa hori nagusiki ikasleak tratatzeko eran. Berrikuntza horren aldeko betiko ikastola, sustrai, ezauga-riak mantendu baina barrutik aldatzearen aldeko apustua egin-da». ■

Inaxita
PELUQUERIA - ILEAPAINDEGIA

ORRAZKERAK
SOLARIUM

Erdikale, 16 - 1.º
Tel. 81 18 24
20730 AZPEITIA
(Gipuzkoa)

GOSE - MAGKAR

estetikako
azken
teknikak

Enparan, 15-1
Tel. 813898

KIRURI
K
JATETXEA

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa.: 943 81 56 08
Faxa.: 943 15 03 62

79tik 99ra egin ez zena, 00tik aurrera egitera

■ **Uztarría Kultur Koordinadora** ■

Kilometroen urtea da 2000. hau, eta ona da Azpeitiak antolatzea horrelako ekitaldi garrantzitsua; batetik, kanpoko-entzat herria bera erreferentzia delako —batik bat festaren egunean—, eta, bestetik, herrian bertan mugimendua handia izaten delako urtean zehar antolatzaileei esker.

1979an ere antolatu zituen Azpeitiak Kilometroak. Ikastolaren mugimenduari itxuragabeko mesedea egin zion, eta poztekoa da hori, hezkuntza sistemaz gain euskara ere atera zelako garaile. Uztarría Kultur Koordinadorak ikuspegi zabalago batekin jorratu nahi du artikulu hau, euskarari helduz soilik, eta, gure ustez, batasun handiko 1979ko ekitaldi hark ez zuen akuilu funtzioa bete edo eraginik izan herriko beste arloetan, nahiz eta euskaltzale eta talde bakan batzuen lan eskerga hor egon den.

Uztarría Kultur Koordinadoraren ustez, azken aldian gauzak aldatzen hasiak dira, eta Azpeitia alor honetan herri eredugarri izateko oinarriak jartzen hasi gara guztion artean. Erakunde mailan hor dago, esate baterako, lehengo urteko udaberritik Azpeitiko Euskara Patronatua. Herri mugimendu mailan, berriz, Uztarría Kultur Koordinadorak sortutako herri aldizkaria, adibidez. Bestetik, ikastetxeetan, ko-

1979
Batasun handiko 1979ko Kilometroak ez zuen eraginik izan euskarari dagokion herriko beste arloetan

BATASUNA
1979tik bakoitzak bere erara funtzionatu du euskara kontuan, eta alde batera utzi behar da era hori; bat egin behar da

EUSKARA ELKARTEA
Elkarte zabala sortzen bada, eta baliabideak eta plangintzak badaude, herri hau herri euskalduna izango da denbora gutxian.

mertzioetan eta abarretan inplikazioa gero eta handiagoa da euskararen alorrean.

Horri guztiari eransten baldin badiogu azpeitiarren %87ak euskaraz badakiela eta hauen artetik ia guztiek egiten dutela, gainera, euskaraz espainolera jo gabe, bistan da une hauetan berez oso baldintza onak ditugula gure herri hau erabat euskalduntzeko.

Orain arte egin ez dena egiteko aukera dago. Baina alde batera utzi behar da azkeneko hogeitazetako funtzionamendua, euskararekin zerikusia duten talde edota erakundeek (euskara taldeek, kirol taldeek, kultur taldeek, udalak, ikastetxeek, saltokiek, enpresek...) ezin dutelako bakoitzak bere erara funtzionatu. Batasuna behar da. Bat egin behar da, betiere errealitatek abiatuta. Izan ere, egia gordina da talde edo erakunde haietako batzuk ez direla ohartu ere egiten

euskararekin zerikusirik dutenik, ez dira ohartzen beraiek ere egiteko asko dutela (ia enpresa denek, adibidez, barruko paper kontua; edo saltoki batzuek erakusleihoetako inprimakiak...), eta, beraz, hasieran zaila izango da eragile guztiak batzea. Baina badira beste talde edo erakunde batzuk kontzientziatuak, eta horiek hartu behar dute akuilua, 1979tik hartzeke dagoen herriko akuilu hori.

Uztarría Kultur Koordinadorak euskara du —komunikazioaz eta Kultur Etxeaz gain— helburu nagusia, eta konbentzitura dago herrian Euskara Elarte zabal bat sortzen bada, baliabideak jartzen badira, plangintza bat egiten bada, eta kontzientzi lan handia bada, Azpeitia bere alor guztietan denbora gutxian herri euskalduna izango dela. Herri eredugarria, hitz bitan.

Hurrengo zita, ordea, urriaren 1-ean dugu euskaltzaleok. Ondo izan.



agirre

oparidenda
argi tresnak - markogintza

Eros etxerako guztia orain eta ordain urtebete... inolako errekarurik gabe.

Erdikale, 1 Azpeitia

79ko KMK Loiolan

30.000 lagunek parte hartu zuten Kilometrotan

► Kilometroen hirugarren jaia Loiola eta Azpeitia bitartean egin zen ► Euskal kulturako pertsona ezagunak etorri ziren, Joxe Migel Barandiaran eta Luis Villasante bestean beste ► 13 milio pezeta atera ziren eta haue-tatik bi Ikastolen Elkarteari eman zitzaizkion.

Nerea Urranga

7 9an Azpeitia eta Loiola bitartean egin zen Kilometroak. Gipuzkoako Ikastolen Elkarteari bertan Kilometroak egiteko eskaria egin zitzaion, Azkoitian ikastola berria egin beharra zegoela eta. Kilometroak jaiaren hirugarren urtea izan zen 79koa. Antolaketa lanetan Azpeitia, Azkoitia eta Zestoako ikastolak ihardun zuten, egunean jaia antolatzen 400 pertsona aritu ziren lanean.

Urriko lehen igandean, urriak

7an, izan ziren 79ko Kilometroak, handik aurrerako Kilometro guztiak urriko lehen igandean ospatu direlarik. 79ko Kilometroen helburuak, bi izan ziren, batetik jendearen kontzientziazioa eta bestetik ikastetxe berria eraikitzeko dirulaguntza.

30.000 lagun

Orain hogeitabat urteko Kilometro haiek hainbat bitxikeria izan zituzten: anagrama Zumeta margolariak egin zuen eta gogoan da oraindik ere, Loiolan ibilbidean muntatu zen burdinezko zubia.

Haserako urteetako Kilometroetan partaidetza kopurua handiagotzen zihoan urtez urte, Loiolara 30.000 lagun hurbildu ziren.

79ko Kilometroei hasiera Gipuzkoako Ikastolen Elkarteko presidenteak eman zion. Gainera, ibilbidean euskal kul-



Bertsolarien saioa Loiolan KMK'79an.

turako pertsona esanguratsuak ere parte hartu zuten, Joxe Migel Barandiaran eta Luis Villasante besteak beste. Pertsonaia ezagunak ibilbidean biltzeagatik, hainbat babesle-ren diru laguntza lortu zuten 79ko Kilometroen antolatzaileek. Guztira 13 milioi lortu ziren orain hogeitabat urtetako kilometroetan, irabazietatik 2 milioi Gipuzkoako Ikastolen Elkarteari eman eta gainontzekoarekin Azkoitiko ikastola berria eraiki zen. ■



AIZPURU
AUTOAK

PEUGEOT

Landeta Auzoa - Urrut.: 943 81 23 59
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

IREDE
ESTETIKA



- + ESTETIKA OROKORRA
- + TATUAIAK
- + MIKROPIGMENTAZIOA
- + SOLARIUM BONOIA (6.500)
- Azken teknologia:
- + LASER BIDEZ BEHINBETIKO DEPILAZIOA:
- Ordaintzeko erreztasunak
- + MASAIA: - Linfatikoa
- Antizelulitikoa

ORDUTEGI JARRAIA (9:00-19:30)
Urbite 4, behea AZPEITIA
Tel. 943 15 15 09

Kilometroak

- 1977 ○ BEASAIN
- 1978 ○ ZUBIETA
- 1979 ○ LOIOLA-AZPEITIA
- 1980 ○ TOLOSA
- 1981 ○ ARRASATE
- 1982 ○ HERNANI
- 1983 ○ DONOSTIA
- 1984 ○ ERRETERIA
- 1985 ○ URRETXU
- 1986 ○ DEBA
- 1987 ○ ZARAUTZ
- 1988 ○ IRUN
- 1989 ○ OÑATI
- 1990 ○ ANDOAIN
- 1991 ○ BERGARA
- 1992 ○ OIARTZUN
- 1993 ○ ORDIZIA
- 1994 ○ LEGAZPI
- 1995 ○ DONOSTIA
- 1996 ○ ELGOIBAR
- 1997 ○ PASAIA-LEZO
- 1998 ○ TOLOSALDEA
- 1999 ○ ORERETA
- 2000 ○ AZPEITIA

Josu Erguin

Kilometroen sortzailea

«EEBBtan ikusitako ideia proposatu nuen»

► Zergatik sortu ziren Kilometroak?

Orduan lizeo berria behar genuen Goierri eta diru behar handia zegoen. Ordurarte betidaniko ekintzak egiten ziren, eta zerbait handia egin beharrean aurkitzen giñen. Urtean behineko zerbait izan beharra zuen, ibiltaria eta nolabait aterki handi baten pean. Ikastolen Elkartepena. Indar horrek urtean behin euskararen eta euskal irakaskuntzaren aldeko ekintza izan behar zuen. Lastima urtean behineroa dela, urtean 365 egunetan egin

beharko litzateke.

► EEBBetatik ekarri zenuen ideia, nolatan?

Nik han ikusitako ideia proposatu nuen. 17 urterekin EEBBtara joan nintzen eta han giza eskubideen aldeko ibilaldi bat egiten zen. Zirkuito bat, eta norberak bilatu behar zuen norbait kilometroko ordaintzeko. Horrela jendea ahalik eta gehien ibiltzen zen.

«**KMK**
oso
festa
polita da»



Josu Erguin
Kilometroen sortzailea da, **EEBB-
etan** ikusitako ideia
Euskal Herriratu
zuen ikastolen
alde. Lehen KMK
Beasainen izan
zen 1977an.

Mikel Uria

► Egun Kilometroak zer iruditzen zaizki- zu?

Oso festa polita da, guk ezarri genion oinarria. Nik amets egiten nuen Kilometroak egungoak izango zirela. Izugarrizko festa da egun horretan sentitzen duguna. ■

Osatuz

Fisioterapia zentrua

Errehabilitazioa

- ☐ Hezur hausturak
- ☐ Bihurrituak
- ☐ Tendinitisak
- ☐ Protesiak
- ☐ Gaisotasun neurologikoak e.a.

Masaia

- ☐ Terapeutikoak
- ☐ Kirol masaia

Arrabal 12 Azpeitia 943 815802

HALCON

BIDAIK

Ondo pasa
Kilometroak!

Eliz-kale, 13 ◆ AZPEITIA ◆ Tel.: 943 81 06 73

Joxin Iturriotz

Urolaldeko bertsolaritza lehiaketako irabazlea

“Ahozko bertsoari lehentasuna eman nahi diot”

► **Lehiaketara aurkeztu eta zure lana aukeratu dute Urolaldeko Bertsolaritza XX. mendean lana egiteko?**

Nik proiektua aurkeztu nuen, kronika bat, zerbait didaktikoa ez ikerketa akademiko bat eskatzen zuten. Bertsoen antologia txiki bat.

► **Zer landuko duzu bertsolaritzaren barruan?**

Asmoa bapateko bertsoari indar handiagoa ematea da. Normalean bapatekoak jasogabe daude, idatzizkoa gehio jaso da ahozkoa baino. Nik ahozkoari lehentasuna eman nahi diot. Asmoa ahal den neurrian bertsoarekin zerikusia duten denak jasotzea da. Gertatzen

Ikasberri Ikastolak KMK'00 ekitaldien barruan antolatutako **Urolaldeko Bertsolaritza XX. mendean** lehiaketako saria jaso du Joxin Iturriotz azpeitiarrak, eta ikerketan dabil burubelarri, gero aterako den liburua osatzen.

Nerea Uranga

da, batzuk lagata daudela, ez dago ezer gordeta. Orain zerrenda osatzen ari naiz, oso zerrenda zabala, ahal bada denen bertso bana jasoko dut. Saiatzen ari naiz, bertsolaritzaren gorabeheren inguruan hari bat ematen, harira bertsolariak lotzen joango naiz, horrelako nahasketa bat eginez.

► **Ze epe duzu lana bukatzeko?**

Epeak atzeratzen joan dira, hasieran urriak baterako zen, orain asmoa Durangoko azokarako ateratzea da. Epea txikia dela iruditzen zait, baina nomala denez Ikasberri-

koek aurten atera nahi dute. Epea dela-eta beldurra daukat erdipurdiko lan batean geldituko ote den.

► **Lana liburu itxuran aterako da, ezta hala?**

Bai. Gutxienez 150 orritako lana egitea eskatzen dute, bertsolari denen zerbait sartuz gero askoz gehio izan daiteke, baina asko luzatzea ere ez dugu nahi.

► **Nondik nora hasi zara lanean?**

Hasieran zegoen materiala aztertzen hasi nintzen. Azpeitian AEK-k, bere garaian, Urola bailaran desagertu baino lehen, eta institutuko ikasleak, Inaxio Tolosa, Iñigo Aranbarri, Xabier Saldias, Pako Aristi, Imanol Ur-

Joaquín Castaño

Araña, 14 - 1º Tel.: 943 15 03 98

ARLO DESBERDINETAN DIPLOMATUA:

- MASAIA TERAPEUTIKO ETA KIROLEZKOA
- REFLEXOLOGIA PODAL ETA BIZKARREZURREKOA
- DRENAI LINFATIKOA
- NATUROPATIA (IRIDILOGIA - FITOTERAPIA)
- HOMEOPATIA
- AJUSTE NEUROLOGIKOAK
- ANGINENTZAKO MASAIA ETA TRATAMENDU BEREZIA



AZPEITIKO UDALA

Azpeitiko Udalak diruz lagunduriko aldizkaria

bieta, Agustin Arenas, Antton Elosua, Agustin Madrazo, Pello Larrañaga, Jose Mari Arozena, Maria Jose Bikendi, Jesus Alberdi *Egileor*, Alberto Pelaez, Trino Azkoitia, Marian Larrea eta Alberto Frantzesenak, Urolaldeko Euskal Eskolak eta Joanes Etxeberriren izenean, Urolaldeko Bertso Zaharrak zintak eta liburua atera zituzten, hoiek dabilzkit eskuartean eta Auspoa saileko liburuak. Material guztia hemen dago, hortik kanpo jaso ez dena galtuta dago.

Bertsotan sartuta dagoen jendearekin ere egon naiz, bizi diren bertsolariak ere elkarrizketatu ditut. Bertsolarien elkarte-ko dokumentazio zentroan ere izan naiz. Gero bil- dutako material guzti horri foma eman behar zaio. Urte asko daramazkit bertsolaritzaren inguruan, uste dut ezagutzen dudu- la eta forma ematen joan- go naizela guztiari.

► **Lan hau egiteko zailta- sunik topatu al duzu?**

Bai, material bilketan. Bapateko bertsoak galdu egiten dira inork jasotzen ez baditu. Orandak berak liburua du eta berak dioen bezala, liburuan jasota daudenak baino hobeak,



**“ETORKIZUNA
IÑON
BALDIN
BADAUKA
BERTSOLARITZAK,
Urola
BAILARAN
da”**

bota izango zituela, baina galtuta izango direla. Daukaguna paperean dagoena da, asko bertso jarriak.

Hemen inguruan uste baino bertsolari gehio dago eta denengana hel- tzea zaila da.

► **Urolaldean bertsolari- tzak ze pisu du?**

Nahiko lotuta dago, eus- kararen presentzia eta bertsolaritza. Inguru era- bat euskalduna da eta bertsolaritza oso zabaldu- ta dago. Dudarik ez, asko egon dela eta dagoela, Basarri eta Uztapide izan dira handienak, baina zerrenda luzea da. Etor- kizuna inon baldin badau- ka bertsolaritzak Urola bailaran da. Horrek ez du

esanahi lan bat ez denik egin behar eskolatan-eta.

► **XX. mendean Urolal- dean zein bertsolari daude?**

Gerra aurretik Auspoan agertzen diren gehienak azkoitiarrak dira. Gero, gerra ostean, Basarri eta Uztapide, bertsolari asko eta onak daude, Txapel, Zepai, Kortatxo, Loidisa- letxe. Ondoren Oranda, Lazkano, Joxe Lizaso eta hauekin batera Gorrotxa- tegi. Hurrengo belaunaldi- koak Lizaso, Euskitze eta Loidisaletxe II.a. Gazteak ere badatoz eta Larra- ñaga ere hor dago Azkoitian. Baina izan dira bertsolariak, hauek be- zainbeste ibili ez direnak ere. ■

AZKOITIA

ERLOJU
KONPONKETAK

Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

**Egin publizitatea
UZTARRIAN**

Tel.: 15 03 58

Kontua da...

Herria defendituz



**Imanol
Elias**

Historialaria

Herriak urteetan ahaleginak egin ondoren osatuko zen Enparantza Nagusia, lurrraren jabetza gehienbat agustindar eta domingotarrena zen. Baina Loiolatarrek bazituzten etxeak eta herriak erosi ondoren lurreratzea erabaki zuten agintariek.

Berehala sortu ziren istiluak eta Matias Inazio Zuazolak, loiolatarren eskubideak de-



oSaSuNa

Arrain kontserbatuak



Julian Bereziartua

Medikua

Arraina kontserbatzeko modu desberdinak azalduko ditugu.

Lehorturik: lehorketarako garrantzitsua da arrain giharrek duten %80 ur kantitatea bakteriek bizitzeko

behar duten ur kopuru minimoaren azpira azkar jais-tea. Modu honetara gizuek deskonposakuntzarik ezin ema hal izango dute. Arrainen lehortze naturak on bat lortzeko,

arrainak ahalik eta freskoe-na izan beahr du. Arrain koitsuek ez dute balio, giharrek baizik.

Lehorketa bi modutara eman daiteke: bata, benetari-ko lehorkuntzaren bidez. Garbitutako arraina zintzilikatuz. Denbora biz-pahiru hilabetekoa da.

Arrain lehortu ona, kolore eta zapore ona duena izaten da eta haragi txuriduna. Lehortu eta gaziturikoa: arraina garbitu, hiruzpalau astean gatzetan eduki eta

aire librean lehortzeko uzten da.

Usai ona behar dute eduki eta muskulu txuria. Gatza %18-20 eta ura berriz %35a. Prestatu aurretik beratuegiten da eta horrela gatz

zati bat galtzen du.


Gauzak garbi: arrain freskoa beti hobe da lehortua baino. Elikagai ona da, baina sabeleko gaitzen bat duenari edo urteetan sartuta denari gutxi jateko esan-go nieke. Euskal Herrian gatza da odolaren tentsio gehiena altxatzen duena.

FRESKOA

Arrain freskoa osasunarentzat beti hobe da, arrain lehortua baino.

SuKaldaritzA

Aza eta odolkien budina



Lehenengo aza eta odolkia batera egosi eta hozten utziko ditugu. Bitartean arraultzak eta

esnegaina irabiatu ditugu, ondoren aza eta odolkiaren nahastuko dugu irabiatu duguna. Labean 45 gradu-

eStetikA

Tratamendua: laser izpiak

Uda pasa ondoren, momentu egokia izaten da laser izpien tratamendua jasotzeko, gustuko ez ditugun gorputzeko gune iletsuentzat batez ere.

Laserraren argi izpia, melaninak (ilearen pigmentu naturala) xurgatzen du. Izpia berotasunean bihurtzen da eta ilearen folikuluko erreboi-



fendatu nahian, auzi krimina-
la jarri zuen Valladolideko
Chancilleria Errealean, uda-
lean fiela zen Domingo Ge-
rrenzuri eta Joseph Goenaga
errejidorearen aurka. Biak
atxilotzeko, bi aguazil bidali
zituen Chancilleriak 1653an.

Herritar agintariekin, udalki-
deen jokaera egoki hartuz
erabaki zuten defendatzeko
gastuei aurre egitea, mendie-
tako egurra ahalik eta azka-
rren salduz, aguazilei ordain-
tzeko. Izan ere Migel Amassa
jesuita, Alcañices eta Orope-

sako Markesaren po-
derea zuen Loiolako
administradoreak le-
gez sinatu zituen sa-
lerosketa paperak.

Uztailak 6an, Valla-
dolidera bidean jar-
tzeko prest ziren Ge-
rrenzuri eta Goena-
ga, Agustin del Casti-
llo alguazilak atxilotu zituen.
Bezperan erabaki zuten agin-
tariekin, Juan Anzia jaunari zi-
larrezko ehun dukat eska-
tzea, legegizonak aukeratu
eta atxilotuak defendatzeko.

ENPARANTZA

**Herriak urte-
etan ahalegi-
nak egin
ondoren
osatuzen
egun dugun
Enparantza
Nagusia.**

Prest ziren baita alka-
tea zen Inazio Agirre
eta Antonio Altuna fie-
la lanean hasteko,
adieraziz komeniga-
ria izan zitekeela be-
raien postuetarako bi-
tartean beste norbai-
tzuk izendatzea, he-
rritik irten beharra zu-

telako, Tomas Eizaga
alkatetzan jarriarik eta Fran-
tzisko Uzkudun fiel bezala.

Herriaren prestigioa zen
nonbait nolabait zalantzan
eta neurriak hartu behar...

Mari Karmen Aizarna / Larrañaga Hospederia Jatetxea

osagaia

**Aza ■ Odolkia ■ Arraultzak ■ Esnegaina ■
babarrun pure.**

tan egosi Maria bainuan,
molde batean sartuta.
Ondoren budina labetik
eta moldetik atera, eta
ontzi batean jarriko dugu.

Mahaira atera aurretik

prestatu dugun budina
babarrun xehatuarekin
apainduko dugu, eta nahi
bada erroboiloa gainerako
ondo datorkio.

On egin dagizuela!

lara heltzen denean ilearen
sustraia erretzen du. Era ho-
netan, berriro ez da ilerik ate-
rako, tratamendua egin den
gunean.

Ez da batere mingarria eta
ez ditu bestelako ondorio-
rik ekartzen laser izpien trata-
mentuak.

Laser izpiekin tratatutako
gunean emaitzak berehala-

koak dira, eta ez da garestia
ateratzen.

Laser izpien tratamendua
edonolako ileentzat eragin-
korra da, eta gorputzeko edo-
zein gunetan egin daiteke
tratamendua.

Eider Azpiazu

Irede Estetika

EuSKaRa

Elebidunak elebakarrak

Aitor Amati

Arantza Azpillaga

Euskal Filologian lizentziatuak

Askok izan du Plaza
Txikiko oharra ira-
kurtzeko unetxo. Urte-
tan oharrok irakurtzen
ohitu ondoren, oharka-
bean gaztelera hutsean
idatzitakoa jasotzen
genuen. «Pér-
dida de cadena
de oro», «misa
aniversario»,
«aviso», irakur-
tzen genitue-
nok, asko poz-
ten gaitu

OHARRAK

**Abuztuan,
guztiak
euskaraz
eta gaztele-
raz idatzita
zeuden**

«urrezko katea galdu
da», «urtebetetze me-
za» edo «oharra» ira-
kurtzeak, ez luke horre-
la izan behar. Azpeitiar
gehienak ez al dira, ba,
euskaldunak?

Oharrak guztiok ulertu
beharrekoak dira, eta
egia da Azpeitian badi-
rela eskubideak bermat-
tu behar zaizkien mo-

nolingüe batzuk. Hala
ere, haien eskubideek
ez dute *elebakarren* es-
kubideek baino gehia-
go balio. Dena ulertu
behar dugunaren aitzai-
gipean, kontu
garrantzitsueta-
rako gaztelera
erabiltzea ezin
da onartu, ba-
koitzari berea
emateko garaia
da.

Orain hiru hilabete,
oharren taulako 4 agi-
rietatik 3 gaztelera hu-
tsean idatzita zeuden
eta bat Erkidego hone-
tako bi hizkuntza ofizia-
letan. Abuztuan, ohar
guztiak euskaraz eta
gaztelera idatzita zeu-
den. Horixe da gure he-
rri *euskaldun* hau egiaz
euskalduntzeko bidea.

25 urte badira Anjel Otaegi nuarbetarra afusilatu zutela

‘Txiki’ eta biak gogoratuko dituzte Gudari Egunean

▶ ETako bi militanteekin batera, Francoren errejimenak FRAPeko hiru kide ere hil zituen ▶ Azpeitian egiten zuen lan Otaegik, eta koadrila ere bertakoa zuen ▶ Egunotan mobilizazioak ditugu herrian, haiek gogoratzeko.

Iban Arregi

Otaegirekin batera herri oso bat afusilatu nahi izan zuten». Anjel Otaegi nuarbetarraren exekuzioari arrazoiren bat aurkitu nahiean-edo, askotan entzun dugu antzekorik. Era batera edo bestera frankismoari aurre egin zion herri bati emandako eskarmentu modura ulertu izan ditugu Otaegi eta Jon Paredes ‘Txiki’-ren hilketak.

1975ko irailaren 27an hil zituzten Txiki eta Otaegi ETako militanteak, afusilatuta. Haiekin batera, FRAP talde iraultzaileko Sanchez Bravo, Baena eta Garcia Sanz ere exekutatu zituzten.

Herriko semea

Herri bati eskarmentua eman behar zitzaion, eta zer hoberik horretarako herriko seme bat hiltzea baino. Garai hartan euskal herritar hainbatek moduan,



Maria, Otaegiren ama, haren hilobiaren aurrean.

Era batera edo bestera
frankismoari aurre egin
zion herri bati
emandako eskarmentua
izan zen haren hilketa

Otaegi nuarbetarra zen,
baina «oso azpeitiarra»
ere ba omen zen

Otaegik, nuarbetar baserritar harek, ETako militanteak lagundu zituen, azpiegitura eskainiz. Eta horregatik hil zuten. Ez zuen zalantzarik izan liberaturen bat etxean hartu eta laguntzeko, edota hainbat eta hainbat borrokatan parte hartzeko. Eta errejimenak Otaegi hautatu zuen Euskal Herria zigortzeko. Herri oso bat izan zen errejimenaren aurkako borrokaren oinarri, eta guztiek ordaindu behar zuten. Baserritarrek, ikasleek, langileek eta dendariak. Horregatik hil zuten Anjel Otaegi.



Azpeitia
Kimu bat

UROLAKO JARDINERITZA

Azpeitia - Urrestilla bidea
Tel./ Faxe: 943 15 00 85
AZPEITIA

ICIAR SAN JUAN

L.S

Ileapainketa
Auto - Makilajea

Loiolabide, 19 behea AZPEITIA Tfno.: 943 81 02 17


Otaegik 33 urte zituen hil zutenean. Nuarbetarra zen, baina haren amak bere garaian aitortu moduan, «oso azpeitiarra» ere bazen. Koadrila eta lantokia Azpeitian zituen, baita elkarte ere. 1974ko azaroaren 18an Nuarben bertan, etxean, atxilotu zuten.

Espetxea eta exekuzioa

Otaegi Martutenen espetxeratu zuten, eta 1975eko maiatza bitartean han eduki zuten. Orduan eraman zuten Burgosera, militante nuarbetarra hil zuten lekura.

Apirilaren 26an Espainiako Gobernuak salbuespen egoera ezarri zuen Euskal Herrian, eta hurrengo egunean Otaegiren aurkako heriotze zigorra eskatu zuen fiskalak. Salbuespen egoera gogorra izan zen Euskal Herrian: atxiloteta ugari, tiroketak, prentsaren aurkako zentsura, atxilotuen aldeko manifestazioak eta grebak... Giro horretan egin zituzten Otaegiren eta besteen aurkako gerra kontseiluak. Azkenean, esan bezala, 1975 irailaren 27an hil zituzten bost gazteak.

Otaegi Burgoseko espetxean bertan hil zuten, baratzeko pare-taren kontra. Bere amak bezperan ikusi zuen azkenekoz bizirik. *Hautsi* buletinaren zazpigarren aleak dionez, hauek izan ziren Otaegik amari esandako azken hitzak: «Guk Euskal Herria askatzeko borrokatzen dugu; eta euskal herriak jakingo du nolakoa den eta nola hiltzen den euskaldun bat».



Otaegi, bere lagunekin.



Anjel Otaegi.

Ekitaldiak

Irailan, Txiki eta Otaegi 25 urte hil zituztela gogoratzuz hainbat ekitaldi egin ziren. Irailak 24an, 11etan herriko plazatik irten eta Nuarbera oinez joan zen jendea. Nuarben omenaldia egin zitzaion eta gero bazkari herrikoia. Irailak 27, Gudari Egunean, manifestazioa eta herriko plazan omenaldia egin zen. ■



Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40

Larrialdiak:
943 81 50 72

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



*gizarte-ekintza
obra social*

zer dago gaizki, zer faltan, zer soberan?

Begiratu eskuineko argazkiari, eta bertan zer dagoen gaizki, zer faltan edota zer soberan asmatu behar duzu. Zeure ustez asmatzen baduzu, adierazi akatsa boligrafoz, moztu orrialde hau eta hilaren 20rako bidali gutun batean hona: Uztarria Kultur Koordinadora, Julian Elorza 4, 2. ezk.; edo posta kutxa 227, Azpeitia.

Izen-abizenak:


Helbidea:

Telefonoa:



Argazkiko akatsa:

Irabazleak **Larrañaga Hospederia Jatetxean** bi lagunentzako afaria izango du, eta UZTARRIAREN elastiko bat ere jasoko du.

aurreko argazkia



...eta soluzioa



irabazlea: Amaia Urbistondo



Afaria eta elastikoa ◆

Amaia Urbistondo izan da hamargarren irabazlea. Sari gisa, bi lagunentzako afaria izan zuen Ongi Etorri jatetxean (bertakoa ere ageri da argazkian), eta UZTARRIAREN elastiko bat ere jaso zuen.



Manuel Salaberria
BEGIKO SENDAGILEA

BEGIKO MIKROKIRURGIA:

- KATARATA. MIOPIA. HIPERMETROPIA.
- BEIRAKARA-ERRETINAKO GAISOTASUNAK
- Erretina askatze.
- Makulako gaisotasunak.
- Erretinopatia diabetiko konplikatuak.



Esther Usandizaga
FAMILIAKO MEDIKUNTZA
ETA MEDIKU OSTEOPATA

- Azterketak (Analisiak...).
- Arreta jarraia.
- Etxera ere joaten gara.

OSTEOPATIA

- Bizkarrezurraren errehabilitazioa (gerrrialdekoa, bizkaraldekoa, zerbikala).
- Gihar eta artikulazioetako arazoak.

Loiola auzoa, 25-B 1.º K
Tfnoa: 943 15 17 52

izan beharreko telefonoak

Erakunde edo toki publikoak

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Nekazal Ganbara	81 46 56
Zerga Bulegoa	81 13 68
Enplegu Batzordea	15 03 00
INEM	15 04 02
Eusko Jaurilaritza	15 16 57
Urkome	81 65 00
Lapatx Zabortegia	81 55 05
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza	85 10 00
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	81 25 55
Ingurugiro Etxea	81 24 48

Osasuna

Anbulategia	81 51 00
(larrialdiak)	81 12 01
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	81 32 97
DYA	81 38 49
(Donostia)	46 46 22

Komunikabideak

Uztarria	15 03 58
DV	15 09 94
Herri Irratia	81 44 58
Kaito TB	81 53 35

Alderdi politikoak

EAJ - PNV	81 55 70
HB - EH	15 12 15
EA	81 00 11

Sindikatuak

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

Ikastetxeak

Betharram	81 16 68
Ikasberri	15 12 46
Iraurgi	81 02 10
Jesuitinak	81 22 49
Karmelo Etxegarai	81 26 65
Milagrosa	81 63 80
Urola DBH	15 02 28

Garraioak

Aldalur	85 27 18
EuskoTren	15 06 77
La Guipuzcoana	85 11 59
Pesa	21 26 99
Piper U. Elkartea	85 25 87
Taxiak	81 13 07

Kultura - Euskara

Euskara Patronatoa	81 19 47
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Uztarria	15 03 58
Antxieta Etxea	81 35 40

autobusak

JOATEKO

Azpeitia-Zestoa-Donostia

Astegunak: 6:50 (1), 7:50 (1), 8:10 (3), 9:00 (1), 10:00, 13:10 (1), 14:00 (1), 15:10, 16:10, 18:45 (2), 19:45 (2).
Larunbatak eta abuztuko astegunak: 7:50, 10:00, 13:40, 15:10, 16:10, 19:15.
Igandeak eta jaiegunak: 15:10, 19:15.
Enpresa: La Guipuzcoana.
Oharrak: 1: Eskola egunetan 'Este-tik' pasatzen da; 2: Sarrera Amaratik; 3: Eskola egunetan soilik.

Azpeitia-Eibar-Bilbo

Astegunak: 6:30, 13:00, 18:30.
Larunbatak: 9:30, 14:30, 18:30.
Igandeak eta jaiegunak: 9:30, 19:30.
Enpresa: Pesa.

Azpeitia-Bilbo-Leioa

Astegunak: 6:35, 7:20, 13:30.
Enpresa: Piper Unibertsitarien Elkargoa.

Azpeitia-Azkoitia

Astegunak: 6:55, 7:25, 7:50, 8:25, 9:25, 9:35, 10:15, 10:25, 11:25, 11:50, 12:25, 13:25, 14:25, 14:35, 15:25, 16:25, 16:35, 17:25, 18:25, 19:15, 19:20, 19:25, 20:25, 22:25.
Asteburuak eta jaiegunak: 7:00, 7:40, 8:40, 10:15, 10:40, 11:20, 12:45, 13:20, 14:40, 16:40, 17:05, 17:20, 18:40, 19:15, 19:35, 19:40, 21:35, 21:40.
Enpresa: EuskoTren.

Azpeitia-Zestoa-Zumaia

Astegunak: 6:30, 7:10, 8:15, 9:10 (1), 10:10, 11:10, 12:10, 13:10, 14:10, 15:10, 16:10, 17:10, 18:10, 19:10, 20:10, 21:10.
Asteburuak eta jaiegunak: 7:25, 9:25 (2), 10:25, 11:45, 12:25, 13:45, 14:25, 16:25, 17:45, 18:25, 20:25, 21:25, 22:05.
Enpresa: EuskoTren.
Oharrak: 1: Aizarnazabaldik pasatzen da; 2: Larunbatetan Aizarnazabaldik pasatzen da.

Azpeitia-Zestoa-Zarautz

Astegunak: 6:40, 8:30, 10:40, 13:25, 15:10, 18:10.
Asteburuak eta jaiegunak: 15:40, 18:10, 20:10.
Enpresa: EuskoTren.

Azpeitia-Zumarraga (hospitela)

Astegunak: 6:55, 8:25, 10:25, 12:25, 13:25, 14:25, 16:25, 18:25, 19:25.
Asteburuak eta jaiegunak: 7:40, 8:40, 10:40, 12:40, 14:40, 16:40, 18:40, 19:40.
Enpresa: EuskoTren.

Azpeitia-Errezil-Tolosa

Astegunak: 6:55, 13:55.
Asteburuak eta jaiegunak: -
Enpresa: EuskoTren.

ITZULTZEKO

Donostia-Zestoa-Azpeitia

Astegunak: 7:50, 8:50, 11:05, 12:05, 13:05 (1), 14:05 (1), 15:05, 17:30, 18:30 (1), 19:30 (1), 20:00 (3), 20:30.
Larunbatak eta abuztuko astegunak: 8:50, 12:15, 14:30, 16:00, 18:00, 20:00.
Igandeak eta jaiegunak: 18:00, 20:00.
Enpresa: La Guipuzcoana.
Oharrak: 1: Eskola egunetan 'Este-tik' pasatzen da; 3: Eskola egunetan soilik.

Bilbo-Eibar-Azpeitia

Astegunak: 10:30, 14:30, 21:00.
Larunbatak: 9:30, 14:30, 18:30.
Igandeak eta jaiegunak: 9:30, 12:30, 21:00.
Enpresa: Pesa.

Leioa-Bilbo-Azpeitia

Astegunak: 13:00, 14:00, 18:00, 19:00, 20:00.
Enpresa: Piper Unibertsitarien Elkargoa.

Azkoitia-Azpeitia

Astegunak: 6:30, 6:45, 7:00, 8:05, 8:15, 9:00, 10:00, 10:30, 11:00, 12:00, 13:00, 13:15, 13:45, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 21:00.
Asteburuak eta jaiegunak: 6:45, 7:15, 9:15, 10:15, 11:00, 11:35, 12:15, 13:35, 14:15, 15:30, 16:15, 17:35, 18:00, 18:15, 20:00, 20:15, 21:15, 21:55.
Enpresa: EuskoTren.

Zumaia-Zestoa-Azpeitia

Astegunak: 6:00, 6:30, 7:00, 8:00, 9:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00 (1), 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 22:00.
Asteburuak eta jaiegunak: 6:35, 7:15, 8:15, 10:15, 10:55, 12:15, 12:55 (2), 14:15, 16:15, 16:55, 18:15, 16:55, 18:15, 19:15, 21:15.
Enpresa: EuskoTren.
Oharrak: 1: Aizarnazabaldik pasatzen da; 2: Larunbatetan Aizarnazabaldik pasatzen da.

Zarautz-Zestoa-Azpeitia

Astegunak: 7:15, 9:00, 11:15, 14:00, 16:00, 18:45.
Asteburuak eta jaiegunak: 16:30, 19:00, 21:00.
Enpresa: EuskoTren.

Zumarraga (hospitela)-Azpeitia

Astegunak: 7:35, 9:30, 11:30, 13:30, 14:30, 15:30, 17:30, 19:30, 20:30.
Asteburuak eta jaiegunak: 8:45, 9:45, 11:45, 13:45, 15:45, 17:45, 19:45, 20:45.
Enpresa: EuskoTren.

Tolosa-Errezil-Azpeitia

Astegunak: 9:30, 18:30.
Asteburuak eta jaiegunak: -
Enpresa: EuskoTren.

farmaziak
gauez

Irailak 25etik urriaren 1era

Etxebeite. Jose de Artetxe, 6. 81 59 74.

Urriaren 2tik 8ra

Azpiazu (Azkoitia). Kale Nagusia, 66. 85 29 89.

Urriaren 9tik 15era

Zulaika. Harzubia hiribidea, 20. 15 03 34.

Urriaren 16tik 22ra

Gisasola (Azkoitia). Jandonianiz, 5. 85 12 35.

Urriaren 23tik 29ra

Beristain. Urbitarte, 3. 81 19 49.

gune publikoen
ordutegia

Udaletxea

Astegunak: 9:00 - 13:30.
Larunbatak: 9:00 - 13:00.

Ixpixioa

Egun osoz irekita.

Igerilekua

Astelehenak: 14:00 - 21:00.
Beste astegunak: 7:00 - 21:00.
Larunbatak: 10:00 - 13:00, 16:00 - 20:00.

Kiroldegia

Astelehenak: 9:00 - 13:00, 15:00 - 21:00.
Beste astegunak: 15:00 - 21:00.
Larunbatak: 10:00 - 13:00, 16:00 - 20:00.

Udal Liburutegia

Astegunak: 10:00 - 13:00, 16:00 - 20:00.

urria

1 (igandea)

■ KILOMETROAK.

Kilometroak 2000 ospatuko da herrian.

7 (larunbata)

■ JUBILATUAK.

Gipuzkoako Jubilatuen elkarteak amtolatuta, erlojupeko mar-txa Legazpin. Aitonena auto-busa.

8 (igandea)

■ TXISTULARIAK.

Goiz eresia herriko kaleetan zehar, herriko Izarraitz Txistulari Taldearen eskutik. 9:00etan.

■ MENDIA.

Arnora, umeen goiz ibilaldia, Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatuta. Irteera 8:30tan plaza.

9 (astelehena)

■ JUBILATUAK.

Jubilatuaren asteeko ekitaldien barruan mus txapelketa azka-rra Aitonena l-ean. Puntuak eta Tutean ere jokatu dute karta-tan.

10 (asteartea)

■ JUBILATUAK.

Jubilatuaren asteeko ekitaldien barruan, Mutrikura ibilaldia. Mutriku-Galdonamendi ibilbidea egingo da oinez. Izena Aitonena eman behar da.

■ JUBILATUAK.

Informatika ikastaroaren hasie-ra. Gabonak arte.

11 (asteazkena)

■ JUBILATUAK.

Jubilatuaren asteeko ekitaldien barruan hitzaldia. Hizlari Iñaki Linazisoro arituko da, Ibilaldiak, irteerak eta helduen osasuna-rien inguruan. Hitzaldian opa-rien zozketa ere izango da. Aitonena. 17:00etan.

12 (osteguna)

■ JUBILATUAK.

Jubilatuaren asteeko ekitaldien barruan txokolatada. Aitonena l eta llan.

13 (ostirala)

■ JUBILATUAK.

Jubilatuaren astearen barruan hitzaldia. Hizlari Ignacio Artetxe medikua arituko da, medikun-tza lanaren inguruan berri-kan. Aitonena leian 16:30etan.

■ BERTSULARITZA.

Zelailuze elkartearen Iñigo Manzisidor Mantxi, Jokin Uranga eta Leire Ostolaza ber-tsolari gazteekin bertso-afaria.

14 (larunbata)

■ JUBILATUAK.

Jubilatuaren asteeko egitaraua-ren barruan Trenaren museora bisitaldia, eta trenaren Lasaoa ibilaldia. 16:00etan.

15 (igandea)

■ TXISTULARIAK.

Goiz eresia herriko kaleetan zehar, Izarraitz Txistulari Taldearen eskutik. 9:00etan.

■ JUBILATUAK.

Jubilatuaren eguna. Trikitilarien kalejira. 10:00etan. Meza parrokiaren 11:etan. Ondoren Sahatsa dantz taldearen saioa eta hamaiketako Aitonena l-ean. Autobusean Kiruri jatetxera bazkaltzera. Aitonena bi zaharren ome-naldia. Bazkalostean magoa eta ondoren dantzaldia eta oparien zozketa.

20 (ostirala)

■ BERTSULARITZA.

Urrestillako Antxieta elkartearen Jokin Uranga, Julen Zulaika eta Iñigo Izagirre Olabe bertsolari gazteekin bertso-afaria.

22 (igandea)

■ TXISTULARIAK.

Goiz eresia herriko kaleetan zehar, Izarraitz Txistulari Taldearen eskutik. 9:00etan.

bide

**Sukaldeko altzariak
eta
horman sartutako
armairuak
neurritan.**

Landeta Auzoa - AZPEITIA
Tel. eta Faxe: 943 81 17 47



**AZPEITIKO IKASTOLA
KARMELO ETXEGARAI**

HAUR HEZKUNTZA-LEHEN HEZKUNTZA

KALITATEZKO EUSKAL HEZKUNTZA

Euskal Herria, 50
Tel.: 943 812697 - Fax.: 943 150830
E-mail: keikastola@jet.es

20730 AZPEITIA
(Gipuzkoa)

■ MENDIA.

Deba-Garate gaina helduen goiz ibilaldia, Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatuta. Irteera 7:00etan plazan.

29 (igandea)

■ MENDIA.

Aitzulora (Araotz) umeen goiz ibilaldia, Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatuta. Irteera 8:00etan Enparantza Nagusian.

■ TXISTULARIAK.

Goiz eresia herriko kaleetan zehar, Izarraitx Txistulari Taldearen eskutik. 9:00etan.

30 (astelehena)

■ JUBILATUAK.

Gernikako azokara irteera. Aitonena zuzendaritzak antolatuta. Autobusa izango da.



■ INGURUGIROA

Zer: Auzolanean bideak irekiz.

Noiz: Urriak 21ean hasita.

Tokia: Izarraitx eta Oñatzen.

AUZOLANEAN

Ingurugiroaren sentsibilizazioa sendotu eta suspertu asmoz, auzolanak jarriko dira martxan Ingurugiro Etxetik eta udaleko inguru-

giro sailetik. Urriak 21etik aurrera, larunbata goizetan bildu eta taldeetan bi ibilbide prestatuko dira. Bata, Izarraitzen eta bestea Oñatzen. Antolatzaileen esanetan «ibilbideak, bata aisialdirako eta bestea helburu didaktikoarekin prestatuko dira».

Ibilbideok auzolanean edota herrilanean prestatu asmoz, antolatzaileak herriko hainbat talderekin jarri dira harremanetan, iraila bukaeran eta urrian hasieran taldeekin bilduz, era honetan taldekideak bertan parte hartzera animatuz. Antolatzaileen esanetan, pertsona partikularrekin harremanetan jartzekoa asmoa ere badago, herritarrek ere parte hartu dezaten, «Taldea eta taldeetan ez dauden pertsonen ere, deialdia zabalduko zaie eta bertan, ibilbideen nondik norakoa azalduko zaie. era honetan auzolana edo herrilana bideratu asmoz».

urria



UROLA IKASTOLA
AZKOITIA - AZPEITIA BHI

- DBH
- BATXILERGOAK
- HEZIKETA ZIKLOAK

KALITATEA ZURE ZERBITZURA

Altamira Auzoa z/g
20720 AZKOITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 85 21 74 / 943 85 22 65
Fax.: 943 85 28 67
E-mail: azkoitia@urola.hezitek.net

Perdilegi, 2
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 15 02 28 Fax.: 943 81 16 94

Perdilegi, 3
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 81 26 65 / 943 81 37 70
Fax.: 943 81 66 20
E-mail: azpeitia@urola.hezitek.net



Lore Sortak
Koroia
Lore Apaingarriak

Etxeetarako
Zerbitzua Dugu



Tel.: 943 81 51 87
Loiola-Bide, 25 - AZPEITIA

Pello Usandizaga

Jubilaue.
Aitonenako
zuzendaritza
batzordekue
eta diruzain
lanetan dabi-
lena. Jubilau
aurretik ofi-
zinako lanak
iten ohitute-
kue eta jubi-
laziye hartu
ondoren-e
lanien segi-
tzeuna.



NEREA URANGA

"NI NEU 60 URTEKIN JUBI- LAU NITZEN ETA 65 URTEKIN ATZEA LANEA"

► Ze lan betetzezu, Aitonenan?

Izatez tesorerue naiz. Ofizinan ohitute iñor eztao-ta, neuk itet ofizinako lana. Administratibo lana-ta. Ni tesoro bezela sartu nitzen, ta sekretarioik ta eztakeu... Lenore lana ofizinan eindekue naiz, ta gutxi gora bera lan hauek eite nitun.

► Zenbat denborako?

Iez sartu giñen, ta bi urteko kargue daukeu. Datorrenien bostek irtengo deu. Baño geo, iñok ezta nahi izeten sartzie, nik *puestos chatarra* deitzeiobet kargu hauei, iñok hartzeik eztitulako nahi.

► Zeatik?

Lana emateu ta, ni neu 60 urtekin

jubilau nintzen eta 65kin atzea lanea. Geo kritikak, eresponsabilitatie... ez da rarue iñork ez nahi izetie-re

► Lan asko ein ber izeten al da?

Bai, asko, ordu asko. Nik nahi beze-la eiteko asko.

"Nik *puestos chatarra* deitzeyet zuzendaritzako *puesto* hauei, iñork ez baititu nahi hartzie"

► Ta lan hontan gustoa?

Bai, ikusi iten dezu zerbait eiten dezula. Danantzat igual ez ta gozue izango... Neuri gustatze zaitena bestie erregalatzie, gustatzen zait.

► Zer ber du batek lan hontan jarduteko?

Borondatie, ta etorritz geo danak ikisten dute zer ein ber dan.

► Ze eratako ekitaldiyek antolatzei-tuzue?

Modu askotakuek. Eskurtsi-yuek, maiatza inguruen has-ten gea eta urte bukaerarte izeten dienak. Gero hitzaldi-yek, karta jokuek, talasoterapia...

► Nola antolatzeituzue eskurtsiyuek? Noa jun da...

Eskeintzak izeteiteu, ta batzuei heldu iteyou. Aurten aurrenekoz zortzi eguneako Tarragona jungo gea, *Generalitat de Catalunya*-ko eskaini ziguten biatje, ta modu onien. Urteroko eskurtsiyuek bi die, eztnak aldatzen, Sanferminetakue eta Gernikako azoka iten deuna.

► Zu zeu animatzen al zea kanpoa irtetzea-ta?

Bai, baño ez gea danak igualak. Batzuei ibiltzie gus-

tatzen zaigu, beste batzuei ez-ta hoientzakore aktibidadiak antolatu ber izateye, jostundeye, gimnasia, ordenadoriek...

► Orduen jendie ordenadore-ta-re animatzea?

Bai, ordenadore danak bete die. Neure juten naiz, lenore ibilita nao.

► Eongoye arrakasta gutxiyoko gau-zek e...

Bai, pinturako klasietako mutil gazte bat topau genu, baño inor ez da apuntatzen. Iñolako kuota gabe eta iñork ez du nahi etortzea. Jendea eskurtsiyoa joateko pagatzeko prest dao, baño beste danien zaile da.

Argi jokatu zure publizitatearekin



Egin publizitatea uztarrian
azpeitiko herri aldizkarian

Tel.: 943 15 03 58

Euskaraz bizitzeko...

26.000 euskaldun zeure zerbitzura!



- 850 jarduera profesional
- 400 udalerri
- 2.600 helbide elektroniko
- EH osoko posta kodeak

Harpidetza egiteko eta Gida etxean jasotzeko, deitu telefonoz edo bidali postaz honako ebakina.
Bi urterik behin, 50 lib./1000 Pta.ren truke, jasoko duzu Gida etxean bidalketa gastuak barne.

ARTEZ Euskara Zerbitzua • 944 480 000 • Luzarra, 10 -2. • 48014 Deustu (BIZKAIA)

zen-deiturak: _____
helbidea: _____ herria _____ P.K. _____
ordainketarako kontua: _____ / _____ / _____

 **Auto berriak**

 **Bigarren eskuko autoak**

 **Mekanika tailerra,
Elektrizitatea, Pintura eta
Karrozeria**

 **24 orduko grua zerbitzua
TELEFONOA: 689 86 88 61**



ZATOZ ETA IKUS!!!

TALLERES ODRIOZOLA, S.L. • Tels.: 943 81 08 08 - 81 08 12 • Fax: 943 81 18 10 • 20730 LOIOLA - AZPEITIA

sare@. informatika

Informatika, zugandik gero eta hurbilago

*Ordenagailuen salmenta
Periferikoen salmenta
Ordenagailu portatilak*

*Asistentzia Teknikoa
Anpliazio ezberdinak*

*kontsola ezberdinen salmenta
Play, N64 eta Game Boy
Joku aukera handia*

**Azpeitian
informatika
Denda Berria**

Pablo VI 19 behea
(Patxo jatetxearen kalerantz)

Tel: 943 157 321
sare@euskalnet.net

Azkoitia
Julio Urkixo 10 behea

**Enpresentzako
zerbitzu berezia**

Enpresa eta norbanakoentzako

Telefona mugikorra, internet eta 1050 zerbitzuak

Banatzaile Ofiziala

 **Euskaltele**